

**AGINDUA, ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZAKO  
SAILBURUARENA, EUSKADIKO NEKAZARITZA, ELIKADURA ETA  
GASTRONOMIARI BURUZKO LEGE-AURREPROIEKTUA ALDEZ AURRETIK  
ONARTZEKOA**

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua 1. apartatuak honako hau xedatzen du: «*Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik*».

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren agindu baten bidez, xedapen orokor bat egiteko prozedura hastera erabaki zen, nekazaritza- eta elikagaigintza-politikaren arloko lege-aurreproiektu bat egiteko.

15. artikulua horren 2. apartatuak honako hau ezartzen du: «*Aldez aurreko onarpen-aginduarekin batera, onartutako testu elebiduna eta artikulua honetan aipatutako gainerako dokumentuak aurkeztuko dira. Horiek osatuko dute hurrengo izapideetarako erabiliko den espedientea, eta berehala bideratzeko aginduko da*».

Azaldutakoaren arabera, IKUSITA 2026ko maiatzaren 19ko Euskadiko Nekazaritza, Elikadura eta Gastronomiari buruzko Legearen aurreproiektua, bai eta hari buruzko arau-inpaktuaren azterketa-memoria eta memoria ekonomikoa ere.

**EBAZTEN DUT**

**LEHENENGOA.-** Aldez aurretik onartzea Euskadiko Nekazaritza, Elikadura eta Gastronomiaren 2026ko maiatzaren 19ko Legearen aurreproiektua, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

**BIGARRENA.-** Agindu honen bidez onartzen den lege-aurreproiektua Legebiltzarrera bidaltzeko agintzea, Jaurleari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1 artikuluan xedatutakoa betez, eta dagozkion gainerako izapideak bideratzea.

Vitoria-Gasteiz,

Amaia Barredo Martín

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua





**LEGE AURREPROIEKTUA, EUSKADIKO NEKAZARITZA, ELIKADURA ETA  
GASTRONOMIARENA/ 2026.05.19**

**Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila**

**Departamento de Alimentación, Desarrollo rural, Agricultura y Pesca**

---

**LEGE AURREPROIEKTUA, EUSKADIKO  
NEKAZARITZA, ELIKADURA ETA  
GASTRONOMIARENA**

## **EDUKIEN AURKIBIDEA**

<b>ZIOEN AZALPENA.....</b>	<b>1</b>
<b>ATARIKO TITULUA – XEDAPEN OROKORRAK .....</b>	<b>10</b>
1. artikulua.- <i>Xedea</i> .....	10
2. artikulua.- <i>Printzipio gidariak</i> .....	10
3. artikulua.- <i>Eremu objektiboa</i> .....	11
4. artikulua.- <i>Lurralde-eremua</i> .....	11
5. artikulua.- <i>Xedeak</i> .....	11
6. artikulua.- <i>Helburuak</i> .....	12
7. artikulua.- <i>Definizioak</i> .....	13
<b>I. TITULUA – NEKAZARITZA SISTEMA ETA NEKAZARITZA USTIATEGIAK .....</b>	<b>17</b>
<b>I. KAPITULUA Familia-nekazaritzaren eta gizarte-oinarriaren ereduaren defentsa.....</b>	<b>17</b>
8. artikulua.- <i>Konpromisoa</i> .....	17
9. artikulua.- <i>Familia-nekazaritzari eta gizarte-oinarriko nekazaritzari laguntzeko politikak</i> .....	17
10. artikulua.- <i>Familia-nekazaritza eta gizarte-oinarriko nekazaritza babesteko lehentasunezko jarduerak</i> .....	17
<b>II. KAPITULUA Nekazaritzako ustiategien antolamendua .....</b>	<b>19</b>
11. artikulua.- <i>Antolamendu-gidalerroak</i> .....	19
12. artikulua.- <i>Antolamendu-jarduketak</i> .....	19
13. artikulua.- <i>Ustiategiaren titularraren betebeharrak</i> .....	20
14. artikulua.- <i>Titulartasun partekatua</i> .....	21
15. artikulua.- <i>Euskal Autonomia Erkidegoko Ustiategien Erregistroa</i> .....	21
<b>III. KAPITULUA Nekazaritza-lurra babestea eta mantentzea .....</b>	<b>22</b>
16. artikulua.- <i>Xedapen orokorra</i> .....	22
17. artikulua.- <i>Nekazaritza-lurra antolatzeke tresna</i> .....	22
18. artikulua.- <i>Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea</i> .....	23
19. artikulua.- <i>Nekazaritza-lurra eskuratzeko bitartekaritza-erakundeak</i> .....	23
20. artikulua.- <i>Gutxiegi erabilitako nekazaritza-lurra</i> .....	23
21. artikulua.- <i>Lurzatiak bateratzea eta elkartzea</i> .....	24
22. artikulua.- <i>Landa-errentamenduak</i> .....	24
23. artikulua.- <i>Mendi publikoen eta herri-basoen kudeaketa</i> .....	24
<b>II. TITULUA – NEKAZARITZA SISTEMAREN INGURUMEN IRAUNKORTASUNA .....</b>	<b>24</b>
<b>I. KAPITULUA Nekazaritza-jardueraren ingurumen-funtzioa .....</b>	<b>24</b>
24. artikulua.- <i>Nekazaritza-jardueraren ingurumen-eginkizuna</i> .....	24
25. artikulua.- <i>Ekosistema-zerbitzuen balorizazioa</i> .....	25
26. artikulua.- <i>Ekonomia zirkularra nekazaritza-jardueran</i> .....	25
<b>II. KAPITULUA Nekazaritza-ekoizpen jasangarria .....</b>	<b>25</b>
27. artikulua.- <i>Ekoizpen-metodo jasangarriagoak sustatzea</i> .....	25
28. artikulua.- <i>Lurzoru-mapen erabilera</i> .....	25

29. artikulua.- Ongarriak, haziak eta produktu fitosanitarioak .....	25
30. artikulua.- Ureztapena .....	26
31. artikulua.- Landare-osasuna .....	26
32. artikulua.- Egoera fitosanitarioa zaintzea eta jakinaraztea .....	27
33. artikulua.- Higienea nekazaritzako ekoizpen primarioan .....	27
<b>III. KAPITULUA Abeltzaintza-ekoizpen jasagarria .....</b>	<b>27</b>
34. artikulua.- Larreak sustatzea eta mendiko larreak mantentzea .....	27
35. artikulua.- Abeltzaintzako ustiatzeen baldintza teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak .....	28
36. artikulua.- Animaliak identifikatzea eta mugitzea .....	28
37. artikulua.- Animalien ongizatea .....	29
38. artikulua.- Animalien elikadura .....	29
39. artikulua.- Animalien osasuna .....	29
40. artikulua.- Albaitaritzako sendagaiak arduraz erabiltzea eta antimikrobianoekiko erresistentzien aurka borrokatzea .....	30
41. artikulua.- Gaixotasunak eta prozesu patologikoak jakinaraztea .....	31
42. artikulua.- Animalia-jatorriko azpiproduktuak .....	31
43. artikulua.- Animalia-arraza autoktonoak .....	32
44. artikulua.- Etxeko animalien babesa .....	32
<b>IV. KAPITULUA Basogintza iraunkorra .....</b>	<b>32</b>
45. artikulua.- Basogintza .....	32
46. artikulua.- Baso-pistak .....	32
47. artikulua.- Basogintzako ziurtagiri iraunkorra .....	32
48. artikulua.- Baso-osasuna .....	33
49. artikulua.- Baso-suteak .....	33
<b>III. TITULUA.- ELIKAGAIEN BALIO-KATEAREN ETA EGURRAREN BASO-BALIOAREN KATEAREN ANTOLAMENDUA .....</b>	<b>34</b>
<b>I. KAPITULUA Elikagaien balio-katean ekoizpen-sektorea indartzea .....</b>	<b>34</b>
50. artikulua.- Nekazaritza-jardueraren enpresa-izaera .....	34
51. artikulua.- Ekoizpen-sektoreak balio-katean duen negozio-ahalmena indartzeko jarduketak eta tresnak .....	34
52. artikulua.- Nekazaritza-eskaintzaren elkartea .....	35
53. artikulua.- Kalitatea sustatzea eta ekoizpenak bereiztea .....	35
54. artikulua.- Jatorri- eta kalitate-ikurren araubidea .....	36
55. artikulua.- Artisau-ekoizpena .....	36
56. artikulua.- Nekazaritzako elikagaien logistika hobetzea .....	37
57. artikulua.- Nekazaritzako elikagaien merkatuetan sartzeta eta kokatzea .....	37
58. artikulua.- Balio-katearen funtzionamendu orekatua .....	38
59. artikulua.- Nekazaritza-azpisektoreen errentagarritasuna hobetzea .....	38
60. artikulua.- Sektoreko finantza- eta zerga-tresnak .....	39
<b>II. KAPITULUA Elikagaien industria eta zura eraldatzeko industria .....</b>	<b>39</b>

61. artikulua.- Nekazaritzako elikagaien industriaren garapena eta modernizazioa.....	39
62. artikulua.- Nekazaritzako elikagaien eta zuraren eraldaketaren industriaren eskubideak eta betebeharrak .....	40
63. artikulua.- Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroa .....	41
64. artikulua.- Elikagai-establezimenduen erregistroa .....	41
65. artikulua.- Zura eraldatzeko politikaren xedea.....	41
66. artikulua.- Baso-industriaren ildo estrategikoak.....	41
<b>III. KAPITULUA Elikadurarako, segurtasunerako eta elikagaien kalitaterako eskubidea .....</b>	<b>42</b>
67. artikulua.- Elikadura-eskubidearen bermea.....	42
68. artikulua.- Elikagaien segurtasun-sistema .....	43
69. artikulua.- Elikagai-krisien kudeaketa .....	43
70. artikulua.- Elikagaiei buruzko informazioa eta etiketak .....	43
71. artikulua.- Elikagaien trazabilitatea.....	44
<b>IV. KAPITULUA Elikadura-sistemaren kontsumoa, jasangarritasuna eta sustapena .....</b>	<b>44</b>
72. artikulua.- Elikagaien kontsumoa .....	44
73. artikulua.- Ekonomia zirkularra eta elikagaiak alferrik galtzea .....	45
74. artikulua.- Nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak sustatzea.....	46
<b>V. KAPITULUA Gastronomia.....</b>	<b>46</b>
75. artikulua.- Gastronomia balio-katean .....	46
76. artikulua.- Gastronomia-jarduera sustatzea .....	46
77. Artikulua.- Sukaldaritza kolektibo jasangarri eta osasungarria.....	47
<b>IV. TITULUA.- SEKTOREARI LAGUNTZEKO POLITIKAK .....</b>	<b>47</b>
<b>I. KAPITULUA Gobernantza, ikerketa, garapen teknologikoa, berrikuntza, prestakuntza eta aholkularitza.....</b>	<b>47</b>
78. artikulua.- Koordinazio administratiboa, gobernantza eta parte-hartze sektoriala .....	47
79. artikulua.- Nekazaritza-arloko euskal administrazioei laguntzeko erakundeak .....	48
80. artikulua.- Nekazaritza, elikadura eta gastronomiaren arloko ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza .....	48
81. artikulua.- AKIS foroa, nekazaritza-ezagutza transferitzeko .....	49
82. artikulua.- Nekazaritzako, elikagaigintzako eta gastronomiako prestakuntza .....	49
83. artikulua.- Nekazaritzako, elikagaigintzako eta gastronomiako aholkularitza .....	50
84. artikulua.- Behatokia eta ezagutza.....	51
<b>II. KAPITULUA Gizarte-, lan- eta prebentzio-eginkizuna .....</b>	<b>51</b>
85. artikulua.- Nekazaritza-ustiategietako eskulanari laguntzeko zerbitzuak .....	51
86. artikulua.- Sasoikako lana .....	52
87. artikulua.- Laneko arriskuen prebentzioa.....	52
88. artikulua.- Nekazaritza-aseguruak.....	52
89. artikulua.- Hondamendiak nekazaritza-sektorean .....	53
<b>III. KAPITULUA Elkartegintza eta ordezkari sektoriala .....</b>	<b>53</b>
90. artikulua.- Printzipio orokorrak .....	53
91. artikulua.- Nekazaritzako, landa-garapeneko edo elikagaigintzako elkarte adierazgarriak .....	54

92. artikulua.- Nekazaritzako Erakunde Profesionalak .....	54
<b>V. TITULUA.- ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZEA NEKAZARITZA- ETA ELIKAGAIGINTZA-SEKTOREAN ETA SEKTORE GASTRONOMIKOAN .....</b>	<b>55</b>
<b>I. KAPITULUA Sustapen-neurriak .....</b>	<b>55</b>
93. artikulua.- Sustapen-neurriak .....	55
94. artikulua.- Laguntzen kudeaketa. ....	55
<b>II. KAPITULUA Lizentziak, baimenak eta beste administrazio-jarduketa batzuk.....</b>	<b>55</b>
95. artikulua.- Baimenen eta lizentzien araubidea .....	55
96. artikulua.- Kontrol ofiziala .....	55
97. artikulua.- Ikuskapen-jarduna garatzen duten langileak eta ahalmenak.....	56
<b>VI. TITULUA - ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ARAUBIDEA .....</b>	<b>57</b>
<b>I. KAPITULUA Arau-haustek .....</b>	<b>57</b>
98. artikulua.- Arau-haustek .....	57
99. artikulua.- Nekazaritza arloko arau-haustek .....	57
100. artikulua.- Abeltzaintzako ekoizpenaren arloko arau-haustek.....	58
101. artikulua.- Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko arau-haustek.....	59
102. artikulua.- Elikagaigintzako arau-haustek .....	60
103. artikulua.- Elikagaigintzako arau-hauste arinak.....	61
104. artikulua.- Elikagaigintzako arau-hauste astunak .....	62
105. artikulua.- Elikagaigintzako arau-hauste oso astunak .....	65
<b>II. KAPITULUA Zehapen-araubidea .....</b>	<b>66</b>
106. artikulua.- Zehapenak .....	66
107. artikulua.- Zehapenak mailakatzea.....	66
108. artikulua.- Neurri osagarriak.....	67
109. artikulua.- Arau-hausteen erantzukizuna .....	67
110. artikulua.- Arau-haustek pilatzea.....	68
111. artikulua.- Arau-hausteen preskripzioa .....	68
112. artikulua.- Prozedura iraungitzea .....	68
113. artikulua.- Zehapenen preskripzioa .....	68
114. artikulua.- Zehatzeko ahalaren organo titularra .....	68
115. artikulua.- Zehapen-prozedura .....	69
116. artikulua.- Zehapenen erregistroa eta publizitatea .....	69
Xedapen gehigarri bakarra: Hizkuntza-eskubideak .....	70
Lehenengo xedapen iragankorra. Indarrean dauden xedapenak.....	70
Bigarren xedapen iragankorra: Errentamenduen erregistroa .....	70
Azken xedapenetako lehena. Erregelamendu bidezko garapena.....	70
Azken xedapenetako bigarrena. Euskadiko Elikakatearen Behatokia .....	70
Azken xedapenetako hirugarrena. Indarrean jartzea .....	70

## ZIOEN AZALPENA

17 urte baino gehiago igaro dira Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legea onartu zenetik, eta aldaketa sakonak gertatu dira euskal nekazaritzako elikagaien sektorean. Aldaketa horiek hura arautzen duen arau-esparruari eragiten diote – batez ere Nekazaritza Politika Erkideari (NPE) –, bai eta haren ekoizpen-, gizarte-, teknologia- eta lurralde-egiturari ere. Horregatik, beharrezkoa da arau hori osorik berrikustea, sektorearen egungo errealitatera eta etorkizuneko erronketara egokitzeko.

Aldi horretan, NPEren bi erreforma egin dira (2014 eta 2021), Europako Itun Berdea (2020) jarri da abian, eta nazioarteko ekimen batzuk finkatu dira, hala nola NBEk familia-nekazaritzari emandako babesa (2014), Garapen Jasangarrirako Helburuak eta “One Health” kontzeptua, animalien osasuna, giza osasuna eta ingurumen-osasuna lotzen dituenak. Horri beste faktore batzuk gehitu behar zaizkio, hala nola berotze globala, EBk hirugarren herrialdeekin egindako merkataritza-akordioak, ekoizpen-prozesuen digitalizazioa, COVID-19aren krisiaren ondoren elikagaien segurtasunak duen garrantzi gero eta handiagoa, eta hainbat gatazka geopolitiko – hala nola Ukrainaren inbasioa –. Horiek guztiak nekazaritzako elikagaien sistema europar eta euskaldunaren egonkortasunean eragin zuzena izan dute eta daukate.

Estatuan, nabarmentzekoa da Elikakatearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legea onartu izana (abenduaren 14ko 16/2021 Legearen bidez aldatutakoa). Lege horrek elikakatearen mailen arteko merkataritza-harremanak arautzen ditu, ekoizpenetik hasi eta kontsumora arte, eta ekintza politikoa katearen ikuspegi integratua bideratu du, gastronomia Euskadin garrantzi handiko elementu estrategiko eta kultural gisa sartuta.

Nabarmentzekoa da, halaber, onartu berri den apirilaren 1eko 1/2025 Legea, elikagaien galerak eta alferrik galtzea prebenitzeko, elikakate osoan elikagaien galerak eta alferrik galtzea prebenitzeko eta murrizteko, ekoizpenetik hasi eta azken kontsumora arte, ekonomia zirkularra sustatuz, elikakateko eragile guztietan jardunbide arduratsuak bultzatuz eta, azken batean, elikadura-sistema jasangarriagoa, efizienteagoa eta bidezkoagoa sustatuz.

Barne-mailan, euskal nekazaritza-sektoreak egiturazko erronka handiei egin behar die aurre: ustiatzearen titularrak pixkanaka zahartzea, belaunaldi-erreleborik ez izatea eta baserriarren kopurua etengabe murriztea. Horrek kolokan jartzen du nekazaritza-eredu tradizionalaren bideragarritasuna eta landa-ingurunearen iraunkortasuna epe ertain eta luzera. Nekazaritzako giza kapitalaren galera horrek, ekoizpenari ez ezik, paisaiaren kontserbazioari, biodibertsitateari, landa-kulturari eta lurralde-orekari ere eragiten die.

Gainera, Europako funtsek NPErekiko duten mendekotasun handiak ziurgabetasun gero eta handiagoa sortzen du sektorearen etorkizunari buruz, bereziki Europatik datozen finantza-baliabideak murrizteko aukeraren aurrean. Egoera hori dela eta, euskal erakundeek gogoeta egin behar dute nekazaritza- eta elikagaigintza-politiken jarraitutasuna bermatzeko moduari buruz, kanpo-finantzaketa gutxiago dagoen egoeran egonda, eta mekanismo propioak diseinatu behar dituzte, euskal nekazaritzako elikagaien sistemaren autonomia estrategikoa indartzeko.

Prozesu osoa bidezko trantsizio baten irizpideari jarraikiz egin beharko da. Trantsizio horrek kontuan hartu beharko du kostuen eta kargen banaketa ekitatiboa, inor atzean utzi gabe, eta arreta berezia emango zaie sektore ekonomiko, lurralde eta biztanleria zaugarrienei; generoaren, adinaren edo pertsonen disfuntzioaren aldagaia integratuz, emakume nekazarien benetako txertatzearekin eta parte-hartzearekin, trantsizio hori bidegabekeriaren eta desberdintasunen beste kausa bat bihurtu ez dadin.

Erronka horien aurrean, gure nekazaritzako elikagaien sektoreak etorkizunari modu jasangarrian heltzeko behar duen paradigma-aldaketa azpimarratu nahi du legeak. Horretarako, bi jarduketabektore azpimarratzen dira.

Lehenik eta behin, nekazaritza-jarduerari aplika dakiokkeen errentagarritasun-bektorea. Euskal nekazaritza-sektoreak errentagarritasuna handitu behar du, funtsezkoa baita iraunkortasunerako eta gaztetzeko. Horretarako, legeak nekazaritza-jardueraren enpresa-ikuspegia du abiapuntu, lehiakortasun eta balio erantsi hobe bilatuz, balio-katean negozioazio-gaitasun handiagoa eduki ahal izateko. Hain zuzen, honako hauek azpimarratzen ditu: lehiakortasun-aldagaiak indartuko ditu (eskaintzaren bolumena, ekoizpenen kalitatea, logistika, marka), dauden merkatuetarako sarbidea indartuko du -hurbileko merkatuetarako sarbidea lehenetsiz-, eta sektorea babestuko du elikakatean nagusitasunezko posizioaren balizko abusuen aurrean.

Jarduteko ildo estrategiko horretan, legeak, gainera, sektorea modernizatzea aurreikusten du, digitalizatorako eta ekoizpen-kostuak murriztuko dituzten teknologia berrietarako sarbidea erraztuz, eta laguntza handiagoa emanez ezagutzaren transferentzian, enpresa-ikuspegitik egindako prestakuntzan eta kalitatezko aholkularitzan.

Bektore horren barruan, funtsezkoa da, halaber, nekazaritza-lurzorua produkzio-faktore nagusi gisa babestea, azpisektore bakoitzaren bilakaeraren aldizkako azterketa egitea, edo ekoizpen-dibertsifikazioa errentagarritasun handiagoko laboreetara eta nitxo berrietara bideratzea -bereiziki ureztapenaren garapenak dakarren potentzialari lotutakoak-. Legeak galdera horiei guztiei erantzuten die.

Bigarrenik, legeak elikadura bektorea du oinarri, hura botere publikoek euskal herritarren aurrean duten eskubide eta bermetzat hartuta; elikagaien hornidura segurua, osasungarria eta kalitatezkoa ahalbidetuko duena; nekazaritza-ekoizpenetik nahiz erauzketa- eta arrantza-jardueratik datorrena, baina baita nekazaritzako elikagaien sektorearen kateko erreferente gisa ere, gure gizarteko sektore estrategiko gisa duen posizionamendua indartzeko.

Segurtasunaren eremuan, legeak gure ekoizpenen elikadura-segurtasuna indartu -katea kontrolatzeko programak indartuz- eta elikagaien ekoizpen ahalik eta handiena bultzatu nahi du, Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien autohornikuntza-maila handitzeko.

Elikagai osasungarri eta kalitatezkoen ekoizpenaren eremuan, legeak programak bultzatzen ditu bere lurraldean ekoiztiko nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen kalitatea hobetzeko, merkatuak aitor ditzan bere ezaugarri fisiko-kimiko, organoleptiko eta nutrizionalengatik; jatorri-deitura eta kalitate bereiziko produktu gehiago lortzeko, euskal elikadura-ondarea indartzeko; eta, azkenik, elikadura bera indartzeko, elementu estrategiko gisa, euskal gastronomiaren nazioarteko posizionamenduan eta proiektioan. Ildo horretan, legeak elikagaien industriaren eta gastronomiaren papera indartzearen alde egiten du, gure nekazaritzako elikagaien ekoizpenetarako katearen ardatz bultzatzaile gisa.

Euskal nekazaritzako elikagaien sektorean eragina duten beste faktore garrantzitsu batzuk honako hauek dira: klima-aldaketak landareen, animalien eta basoen osasunean duen inpaktua; energia berriztagarrien garapenak nekazaritza-lurzoruan erasandako eragin berriak; ekonomia zirkularrak lehen sektorean duen zeregina; eta elikagaien xahutzearen aurkako borroka. Testuinguru horretan, euskal administrazio publikoek beren jarduketak egokitu dituzte nekazaritzako elikagaien sektoreari eragin dioten baldintzatzaileetara — aldekoak eta kontrakoak —, bai araudiaren ikuspegitik, bai eta aurrekontuaren ikuspegitik ere. Hala ere, egungo egoerak lege-esparru berri bat eskatzen du, datozen urteetako ekintza politikoa bideratuko duena, sektorearen erresilientzia indartuko duena eta etorkizuneko jasangarritasuna bermatuko duena, ikuspegi estruktural, sozioekonomiko eta lurralde-ikuspegi eguneratu batean oinarrituta.

Lege hau, beraz, tresna estrategiko gisa proposatzen da, egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko, euskal nekazaritzako elikagaien eredu lehiakorra, bidezkoa, iraunkorra eta errealitate berrietara egokitua finkatzeko; emakume nekazarien sarbidea eta parte-hartzea sendotzeko eta elikadura-sistemak Euskadiko identitatearen, ongizatearen, osasunaren eta ekonomiaren funtsezko zutabe izaten jarraitzen duela bermatzeko.

Eta, era berean, sektoreak egungo euskal gizartean betetzen duen zereginean jartzen du arreta legeak, herritarrei elikagaien horniduran eta kontsumoan, zerbitzu ekosistemikoen eta ingurumeneko ekoizpenean, lurzoruaren eta paisaiaren babesean edo gure gastronomiaren munduko ospean duten rola helaraziz.

Legeak atariko titulua eta sei titulu ditu, kapitulutan banatuta, guztira 116 artikulua, xedapen gehigarri bat, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

Atariko tituluak legearen xedapen orokorrak jasotzen ditu, jarduteko printzipioei, xedeari, eremu objektiboari eta lurralde-eremuari, xedeei, helburuei eta definizioei buruzkoak. Garrantzitsua da adieraztea titulu horretan jasotzen dela –eta gero artikuluetan garatzen da- legearen helburuetako bat emakumeen benetako titulartasun eraginkorrerako sarbidea bultzatzea dela, helburu hori erraztuko duten eremu guztietan jardunez, eta nekazaritza-jardueraren enpresa-lidergoa beren gain hartuko duten profesional kualifikatuak sartzea sustatuz.

I. tituluak, hiru kapituluetan, honako hauek jasotzen ditu: familia- eta gizarte-nekazaritzaren ereduaren defentsa, euskal nekazaritza-jardueraren erreferentzia nagusi gisa; nekazaritza-ustiategiaren antolamendua, haien bideragarritasuna eta iraunkortasun ekonomikoa bermatuko duten nekazaritza-ustiategiak eta kudeaketa-ereduak garatu, finkatu eta mantentzeko helburuarekin; eta nekazaritza-lurzuaren defentsa eta mantentzea bermatzeko beharrezkoak diren ekintzak.

II. tituluak nekazaritzak ingurumen-jasangarritasunean duen zeregina definitzen du, eta nekazaritza-kudeaketa ingurumena babestearekin, natura-ingurunea zaintzearekin eta biodibertsitatea kontserbatzearekin bateragarri egiteko moduan arautzen du.

Titulu honetan, halaber, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-ekoizpen jasangarria jorratzen da, besteak beste, helburu hauekin: ekoizpen ekologikoa eta nekazaritza birsortzailea garatzea; larreak sustatzea eta mendiko larreak mantentzea; eta Euskadiko basoen ingurumen-balioa babestea.

Era berean, landare- eta animalia-osasunaren ikuspegia lantzen da "One Health" ikuskeratik, eta zaintza- eta prebentzio-tresnak, klima-aldaketara egokitzeko tresnak eta izurriteen eta gaixotasunen aurrean jarduteko tresnak azpimarratzen dira.

III. tituluak elikagaien balio-kateen kudeaketa arautzen du, eta neurriak ezartzen ditu nekazaritza-jarduera enpresa-jarduera gisa sustatzeko, hala nola sektore ekoizleak balio-katean duen negoziazio-ahalmena indartzea; ekoizpenen kalitatea bultzatzea; logistikaren arloko ekintzak garatzea; nekazaritzako elikagaien merkatuetarako sarbidea sustatzea; edo azpisektore produktiboen errentagarritasun ekonomikoa hobetzea.

Titulu horren barruan, baso-eraldaketa eta balio-kateko nekazaritzako elikagaien ekoizpena ere jorratzen dira, jasangarritasuna babesteko, lehiakortasuna indartzeko eta tokiko lehengaiaren hornidura bermatzeko, bai eta elikagai seguru, osasungarri eta kalitatezkoen ahalik eta ekoizpen handiena sustatzeko ere.

Titulu honetan, gastronomiak eginkizun estrategikoa du euskal elikadura-katearen barruan, eta gastronomiaren garapena eta promozioa sustatzeko, suspertzeko eta bultzatzeko neurriak jasotzen ditu, bai eta osasunera, jasangarritasunera eta hurbiltasunera bideratutako sukaldaritza kolektiboa bultzatzeko neurriak ere.

IV. tituluak gobernantza instituzionala eta ikerketa, garapen teknologikoa, prestakuntza eta aholkularitzara bideratutako sektoreari laguntzeko politikak definitzen ditu. Titulu horretan, halaber, sektoreko lan- eta prebentzio-eremua bermatzeko neurriak jasotzen dira, lan-arriskuen prebentzioari, sasoikako lanari edo nekazaritza-aseguruei dagokienez.

Azkenik, titulu honetan, nekazaritzako, elikagaigintzako eta gastronomiako asoziazionismoa bultzatzeko ekintzak jasotzen dira.

V. tituluak, sektoreko esku-hartze administratiboari buruzkoak, sustapen-neurri nagusiak eta bultzatu beharreko politika aktiboak arautzen ditu, legean bertan definitutako helburu orokorrekin bat etorritik. Era berean, laguntzak kudeatzeko eskumena jasotzen da, eta baimenak eta lizentziak ematea ezartzen da, bai eta ikuskapen- eta kontrol-eginkizunak betetzea ere.



## **LEGE AURREPROIEKTUA, EUSKADIKO NEKAZARITZA, ELIKADURA ETA GASTRONOMIARENA/ 2026.05.19**

**Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila**

**Departamento de Alimentación, Desarrollo rural, Agricultura y Pesca**

---

Azkenik, VI. tituluan, esku-hartze edo sustapen-jarduera orok nahitaez izan behar dituen arau-hausteen eta zehapenen araubidea jasotzen da, jarduera horien helburua lortzen dela bermatzeko.

Xedapen gehigarriek, iragankorrek, indargabetzaileek eta azken xedapenek legea behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren aurreikuspen batzuk jasotzen dituzte.

## **ATARIKO TITULUA – XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua.** - *Xedea*

Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-arloko euskal administrazioek nekazaritza-, elikagai- eta gastronomia-politika garatzeko oinarri eta printzipio inspiratzaileak ezartzea, unean-unean indarrean dauden arau-esparruekin bat etorritik, eta, betiere, Autonomia Estatutuan eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Amankomunen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanei buruzko Legean ezarritako eskumen-banaketa errespetatuz.

Era berean, lege honen xedea da nekazaritzako elikagaien euskal sektoreari tresna berriak ematea, haren funtsezko izaera estrategikoa indartu eta sendotzeko, eta, horrela, elikagaien hornidura eta irisgarritasuna, jasangarritasun ekonomikoa eta euskal herritarren elikadura-segurtasuna bermatzeko, bereziki krisi-egoeretan. Hori guztia, nekazaritzako elikagaien sistemaren jasangarritasun-erronkei eta ustiatzearen eta enpresen errentagarritasunaren, bideragarritasunaren eta etorkizunaren bermeari laguntzeko.

### **2. artikulua.**- *Printzipio gidariak*

Nekazaritza-arloko euskal administrazioek, beren ekintza politikoaren esparruan, printzipio gidari hauek izango dituzte:

- a) Gizarte-bermearen printzipioa, kalitatezko elikagaiak, seguruak eta hurbilekoak eskuratzeko: euskal herritarrei elikagai nahikoak, seguruak, osasungarriak, kalitate egiaztatukoak eta hurbileko baldintzetan ekoizitakoak eskuratzeko aukera bermatzea, ekoizpen-sektorearen eta herritarren arteko lotura indartuz. Printzipio horrek euskal administrazioen politika publikoak honako hauek babestera bideratuko ditu: elikagaien segurtasuna, trazabilitatea, kalitate berezia, kontsumitzaileei egiazko informazioa ematea eta tokiko eta hurbileko elikadura-sistemak sustatzea, funtsezko elementu baitira gizarte-kohesiorako, lurralde-orekarako eta gizarteak euskal elikadura-sisteman duen konfiantzarako.
- b) Nekazaritzako eta elikagaigintzako balio-katearen egituraketaren, errentagarritasunaren eta lehiakortasunaren printzipioa: politika publikoa Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako elikagaien balio-katearen ekonomia indartzera bideratzea, haren egituraketa, oreka eta efizientzia egokia sustatuz maila guztietan, ekoizpen primariotik hasi eta eraldaketa, banaketa eta merkaturatzera arte. Printzipio horrek honako hauek bultzatuko ditu: balio erantsia sortzea, ustiatzearen eta enpresen errentagarritasuna hobetzea, berrikuntza, dimentsio ekonomikoa nahikoa eta sektorearen lehiakortasuna merkatuetan, eta, horretarako, harreman bidezkoak, gardenak eta jasangarriak bultzatuko ditu kateko eragileen artean.
- c) Euskal nekazaritza-sektorea, nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorea eta sektore gastronomikoa babestearen printzipioa: ekintza politikoa gure sektorea babestera bideratzea, jasangarritasuna arriskuan jar dezaketen kanpo-jarduketan aurrean, nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorearen lehiakortasuna sustatuz sektorea hobetzeko eta modernizatzeko gako gisa, haren garapen ekonomikoa eta erresilientzia bilatuz dauden baliabideak murriztu gabe, kudeaketan malgutasunez jardunez eta sektorearen eta merkatuaren baldintza aldakorretara egokituz. Hori guztia nekazaritza-, elikagai- eta gastronomia-sektoreetako enplegua zainduz egingo da.
- d) Nekazaritza-paisaia eta -nortasuna babesteko printzipioa: Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-jardurekin lotutako kultura-, zentzumen- eta paisaia-nortasuna babestea eta balioestea. Izan ere, sektorea eta haren jarduera lurraldearen eta bere paisaia produktiboaren ondare komunaren zati gisa aitortzen dira, landa-ingurunearen berezko adierazpenak baitira — soinu eta usain bereizgarriak barne —.

- e) Kudeaketa oso, efiziente eta gardenaren printzipioa: zuzentasunez jardutea, sustapen-politiken onuradun izan daitezkeen pertsonetikiko diskriminazio edo tratu oro saihestuz, indarrean dagoen araudiak baimentzen ez dituen datuen tratamendua edo hedapena saihestuz; sinplifikazio administratibo eta burokratikoaren aldeko apustua egitea, eta ahalik eta gardentasun handienaz bermatzea diseinatutako jarduketan hedapena eta komunikazioa.
- f) Erakundeen arteko lankidetzaren printzipioa: elkarrekin lan egitea Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-, elikagai- eta gastronomia-politikak diseinatzen, batez ere Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordearen bidez; erakundeen arteko leialtasunaren, eskumenen errespetuaren eta ekintza politikoan laguntzearen planteamenduak oinarri hartuta, lege honen xedeak eta helburuak lortzeko. Printzipio hori bera aplikatuko da euskal administrazioetako beste sail batzuekin partekatutako kudeaketa- eta gauzatze-ekintzetan.
- g) Eragile sektorialekiko lankidetzaren printzipioa: euskal nekazaritza-administrazioen eta sektoreko eragile adierazgarrien arteko entzunaldia, koordinazioa, kontsulta eta aholkularitza teknikoaren bermatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-, elikagai- eta gastronomia-politikak diseinatzeko, batez ere Nekazaritza, Elikagaigintza eta Landa Garapeneko Kontseiluaren bidez. Printzipio hori ekintza positibo batetik eragile sektorialek garatu eta euskal administrazio publikoek bultzatutako politika aktiboetarako gauzatuko da.
- h) Subsidiarioritasun- eta proportzionaltasun-printzipioa: Europar Batasunaren Nekazaritza Politika Bateratuak araututako neurriak kudeatzea eta aplikatzea, Europar Batasunaren Tratatuan aitortutako bi printzipioak defendatuz eta Euskal Autonomia Erkidegoak nekazaritzaren, elikagaien eta gastronomiaren arloan duen eskumen-eremu eskusiboa babestuz.
- i) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa: neurri egokiak hartzea nekazaritzaren sektorean emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko, Emakume Nekazarien Estatutua osorik garatuz. Printzipio horrek emakumeak nekazaritza-sektorean sartzea bultzatuko du, bai eta familia-ustategien eta gizarte-oinarriko ustategien titulartasun erreal eta eraginkorra lortzea eta nekazaritza-arloko erabaki-organoei parte hartzea ere.

### **3. artikulua.- Eremu objektiboa**

Lege honen aplikazio-eremu objektiboa nekazaritza-, elikagai- eta gastronomia-sektoreen antolamendu orokorra da, ekoizpen-, eraldaketa- eta merkaturatze-arloei dagokienez, bai eta, oro har, nekazaritza-ingurunearen jasangarritasunari lotutako jardueri dagokienez ere. Era berean, lehen sektorearen eta haren elikadura-katearen garapen jasangarriari laguntzen dion beste edozein jardura barne hartzen du.

### **4. artikulua.- Lurralde-eremua**

Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatuko da; eta, kontuan hartuko da, modu orokorrean, lege honen eremu objektiboari dagozkion nekazaritza-, elikagai- eta gastronomia-jarduerak egiten diren lekua.

### **5. artikulua.- Xedeak**

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-politika honako helburu hauek lortzera bideratuko da:

- a) Familia-nekazaritzan oinarritutako nekazaritzako elikagaien eredia defendatzea, bere ezaugarriengatik euskal ustategien ekoizpen-egiturara, lurraldearen errealitateara eta lurraldearen baldintza sozioekonomikoetara ondoan egokitzen dena delako. Hala ere, lege honek gure Erkidegoan dauden ekoizpen-ereduen aniztasuna babesten du, betiere arau honetan ezarritako manuetara egokitzen badira.

- b) Nekazariak bidezko errentak lortzen dituztela, beren lana eta produkzio-kostuak behar bezala ordaintzen dituztela eta euskal gizarteko beste sektore ekonomiko batzuen errentekin pareka daitezkeela bermatzea.
- c) Nekazaritza-ustiategiaren titulartasuna gaztetzen laguntzea, nekazaritza-sektore biziak, lehiakorak eta etorkizunekoak irautea bermatzeko egiturazko lehentasun gisa.
- d) Nekazaritza-lurzorua babestea, ekoizpen-jardueraren, landa-inguruneari eustearen eta paisaiaren kudeaketaren oinarri gisa.
- e) Modernizazio teknologikoa eta digitala bultzatzea nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorean.
- f) Ingurumen-erronkei laguntzea, nekazaritzako elikagaien eta basogintzaren euskal sektoreak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko eta hobetzeko duen zeregina indartuz, jardunbide arduratsuak sustatuz eta ingurumen-jardunaren kuantifikazio-, ebaluazio- eta jarraipen-sistemak txertatuz.
- g) Kontsumitzaileak behar bezala ordaindutako kalitatezko elikagai seguruen ekoizpena eta merkaturatzea bultzatzea, kate osoaren errentagarritasuna bermatzeko. Horrek ustiategiaren eta enpresen etorkizuna ahalbidetzen du, elikagaien autohornikuntzarako eta gure gastronomia indartzeko faktore gisa.
- h) Euskal gizarteak sektore hori aitor dezan sustatzea, bai eta sektore hori eskola-hezkuntzara eramatea ere, nekazaritza- eta elikagaigintza-sektoreak eta basogintza-sektoreak zeregin estrategikoa eta etorkizuneko betetzen dutela aitor dadin ondasun eta zerbitzuen ekoizpenean, paisaiaren eta biodibertsitatearen babesean, karbono-bilketan eta ingurumen-kudeaketan, landa-ingurunearen kontserbazioan eta lurraldearen kudeaketa orekatuan, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondareari eusten ere.
- i) Elikagaiak alferrik galtzea prebenitzea eta murriztea elikagaien ekoizpen-, eraldaketa-, hornidura- eta kontsumo-katearen maila guztietan, eta euskal nekazaritzako elikagaien sistemaren ekonomia zirkularreko eredu baterako trantsizioa sustatzea.
- j) Nekazaritza- eta elikagaigintza-eragileei eska dakizkiekeen kudeaketa burokratikoaren eta kontrolen sinplifikazioa bultzatzea.
- k) Euskal nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren babesa hobetzea hirugarren herrialdeetako inportazioen aurrean eta nazioarteko merkatuen gorabeheren aurrean.

## **6. artikulua.- Helburuak**

Aurreko artikuluan ezarritako xedeak lortzeko, lege honek helburu hauek ezartzen ditu:

- a) Nekazaritza-ustiategiak merkatuaren eskakizunetara egokitzea, gaitasun teknologikoak eta digitalak emanez eta laguntza-zerbitzuekin lagunduz, familia-nekazaritzan ahalik eta ustiategi eta pertsona gehienek iraun dezaten.
- b) Nekazariari errentarako laguntza publikoa mantentzea eta defendatzea – Nekazaritza Politika Erkidearen edo euskal administrazio eskudunek garatutako tresnen bidez–, klima-mendekotasun aldakorraren, baldintza orografiko produktiboen eta merkatuak ordaindu gabeko kanpo-efektu positiboak sortzearen konpentsazio gisa.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-azalera erabilgarria mantentzea edo handitzea.
- d) Elikagaien balio-katean ekoizpen-sektorearen negoziazio-ahalmena indartzea, honako hauek sustatuz: eskaintzaren taldekatze kolektiboa, kalitate-ziurtagirien mantentzea eta garapena, ekoizpenaren eta merkatuen dibertsifikazioa, eta elikakatearen funtzionamendua hobetzeko indarrean dagoen araudia betetzen dela administratiboki zaintzea.

- e) Belaunaldi-erreleboa eta gazteak nekazaritza-sektorean sartzea bultzatzea, helburu hori erraztuko duten eremu guztietan jardunez, eta nekazaritza-jardueraren enpresa-lidergoa beren gain hartuko duten profesional kualifikatuak sartzea sustatuz, haien lana behar bezala konpentsatuko duen errentagarritasuna lortzeko.
- f) Emakumeen aitorpen profesionala, jasangarritasuna eta bilakaera aukera-berdintasunean sustatzea nekazaritzako elikagaien sektorean.
- g) Nekazaritza-lurzorua babesteko eta bertan behera utzitako lurzoruen aurka borrokatzeko indarrean dauden tresnak eguneratzea eta berritzea, ustiatzei beren ekoizpen-kostuak murrizteko lur-dimentsio egokia eman ahal izateko, bai eta haien erabilera energia berriztagarrien ezarpenarekin bateragarri egitea ahalbidetzen duten teknologiak garatzea ere.
- h) Euskal zentro teknologikoen garatutako ikerketa, talentua erakartzea eta kanpoko berrikuntzak, aholkularitza eta ezagutzaren transferentzia, digitalizazioa eta modernizazio teknologikoa indartzea; euskal nekazaritzako elikagaien eta basogintzaren sarea lehiakortasun-eskakizunetara etengabe egokitzen dela bermatzeko eta haren errentagarritasuna hobetzeko.
- i) Nekazaritza-sektoreak karbono-aztarnaren murrizketan eta biodibertsitate ez-kaltegarriaren babesean duen zeregina indartzea; fitosanitarioen eta ongarrrien erabilera jasangarria sustatzea, lurzoruen kalitatea zaintzeko eta ekoizpenen landare-, animalia- eta baso-osasuna zaintzeko eta artatzeko. Era berean, animalien ongizatea eta ureztatzeko uraren erabilera eraginkorra sustatzea, eta ekonomia zirkularreko eta elikagaiak alferrik galtzearen aurkako jardunbideak ezartzea.
- j) Merkatuetan kalitatezko erreferente gisa aintzatetsitako elikagaien elaborazioa bermatzea, kontsumitzaileen osasunerako eta ongizaterako berme guztiak eskaintzen dituztenak eta euskal gastronomiaren bereizketari eta ospeari laguntzen diotenak.
- k) Elikadurarekiko kanpo-mendekotasuna murriztea, eta euskal elikagaiei balio erantsi handiagoa sortzen duten merkatuetarako sarbidea erraztea.
- l) Euskal nekazaritzako elikagaien ekoizpenen eta basogintza-sektoretik eratorritakoen trazabilitatea bermatzea, horien eraldaketa lehiakorra bultzatzea, elikakatearen segurtasuna kontrolatzea, ekoizpenen sustapena eta merkaturatzea hobetzea, merkatu berriak irekitzea eta, oro har, euskal nekazaritzako elikagaien industria indartzea.
- m) Lehen eta bigarren hezkuntzako euskal hezkuntza-ereduan nekazaritza- eta elikagaigintza- arloko prestakuntza-edukiak sartzea, euskal herritarrei zuzendutako nekazaritzako elikagaien sektorearen balioei buruzko sentsibilizazio-kanpainak garatuz eta nekazaritza- arloko euskal administrazioen eta nekazaritzako erakunde profesionalen eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste eragile sektorial batzuen arteko lankidetzak sustatuz, lehen sektorearen irudi positiboa zabaltzeko.
- n) Nekazarien prestakuntza eta haien enpresa-gaikuntza sustatzea.
- o) Erakundeen jarraipen sanitarioko bitartekoek erabilgarritasun- eta koordinazio-baldintza egokiak betetzen dituztela bermatzea, izurriteak eta gaixotasun emergenteak eraginkortasunez kontrolatzeko.

## **7. artikulua.- Definizioak**

Artikulu honetan jasotako definizioak orokorrak izango dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko arau-xedapen guztietan aplikatuko dira, salbu eta xedapen horietan berariaz esangura bat ezartzen bada.

1. Nekazaritza-jarduera: nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako produktuak lortzeko beharrezkoak diren lanen multzoa, horien eraldaketa, ontziratzea eta merkaturatzea barne, betiere azken horiek ustiategiaren barruan egiten badira. Ustiategia mantentzeko behar diren lanak ere sartzen dira.
2. Nekazaritza-jarduera osagarria: ustiategiaren titularrak parte hartzea eta presentzia izatea nekazaritza-sektoreari lotutako elkarre-, kooperazio- edo lanbide-izaerako ordezkari-organoei; ingurumen-ondasunak eta -zerbitzuak eta landa-garapenekoak lortzea; jarduera turistikoak, zinegetikoak, artisau-jarduerak eta ustiategian egindako beste dibertsifikazio-ekintza batzuk, hala nola energia berriztagarriaren ekoizpena.
3. Nekazaria: nekazaritza-jarduera egiten duen pertsona fisikoa.
4. Nagusiki nekazaria: nekazari profesionala, pertsona fisikoa, errenta osoaren % 50, gutxienez, bere ustiategian egindako nekazaritza-jardueratik lortzen duena, eta urtean lanean emandako denboraren erdia edo gehiago jarduera horretan ematen duena. Pertsona juridiko batek nagusiki nekazaritza diharduela ulertuko da, baldin eta bazkideen % 50 nagusiki nekazaritza jotzen badira, lehen adierazitakoaren arabera. Sozietateak badira, forma juridikoa sozietate zibila denean izan ezik, bazkideen partaidetzak edo akzioak izendunak izatea ere eskatuko da. Nolanahi ere, estatutuetan edo bazkideen batzar orokorraren erabakian aurreikusi beharko da bazkideen artean tituluak eskualdatuz gero, arestian adierazitako baldintzak bermatuta geratu beharko direla.
5. Nekazari misto profesionala: 18 eta 55 urte bitarteko pertsona fisikoa, nekazaritza-jarduera egiten duena edo egingo duena eta helburu sozialtzat nekazaritza-jarduera ez duen enpresa batean besteren konturako langilea dena.
6. Nekazari profesionala: nekazaritza-ustiategi baten titularra edo titularkidea izanik, errenta osoaren % 50, gutxienez, nekazaritza-jardueretatik edo nekazaritza-jarduera osagarrietatik lortzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, betiere bere ustiategian egindako nekazaritza-jardueratik zuzenean lortutako errenta ez bada guztizko errentaren % 25 baino txikiagoa, eta nekazaritza-jardueretan edo nekazaritza-jarduera osagarrietan emandako lan-denbora, guztira lan egindako denboraren erdia baino handiagoa bada. Pertsona fisikoen kasuan, jarduerari dagokion Gizarte Segurantzako araubidean alta emanda egon beharko dute.
7. Oinarri sozialeko nekazaritza: oinarri sozialeko nekazaritza nekazaritzako elikagaien ekoizpen-eredu bat da, egitura kolektiboek sustatua, hala nola kooperatibek, eraldaketarako nekazaritza-sozietateek, ondasun-erkidegoek edo gizartea antolatzeke beste modu batzuek, eta ezaugarri hauek ditu: kudeaketa demokratikoa, kideen parte-hartze aktiboa eta lurraldean etekinak berrinbertitzea.
8. Familia-nekazaritza: familia-oinarriko nekazaritzako elikagaien ekoizpen-eredua da familia-nekazaritza, eta landa-ingurunean garatzen da haren jarduera. Kideen errenta eta dedikazioa nekazaritza-jardueratik datoz batez ere. Eredu hori multifuntzionala da, eta balioa ematen die ekonomiaren, gizartearen, lurraldearen, ingurumenaren eta kulturaren eremuetan. Horiek aintzat hartzeko eta babesteko, neurri espezifikoak behar dira, jasangarritasuna, belaunaldi-erlebeoa eta landa-garapenean laguntzea bermatzeko.
9. Elikagaigintzako: nekazaritzatik, arrantzatik, akuikulturatik, itsas haztegietatik, ehizatik eta mikologiatik edo beste jatorri natural batetik datozen elikagaiak ekoiztea, eraldatzea, ontziratzea eta merkaturatzea.
10. Elikagaien autohornidura: baldintza horretan, modu egonkorrean eta une oro, pertsonak eta ganaduak elikagai seguruak, nutritiboak eta nahikoak eskuratzeko aukera dute, beren premiak asetzeko eta haien osasuna, ongizatea eta produktibitatea bermatzeko. Kontzeptu hori lotuta dago lurralde batek bere kanpo-mendekotasuna murrizteko duen gaitasunarekin, elikadura-subiranotasuna indartzuz.

11. Elikagaien balio-katea: elikadura-sisteman esku hartzen duten katebegien, agenteen eta jardueren multzo artikulatua, sargaien hornidura eta ekoizpen primarioa, eraldaketa, ontziratzea, biltegitratzea, logistika, banaketa eta handizkako eta txikizkako merkaturatzea, sukaldaritza modalitate guztietan eta azken kontsumitzailearen kontsumoa, fase bakoitzean sortutako hondakinen eta azpiproduktuen kudeaketa barne.
12. Basoaren eta zuraren balio-katea: baso-baliabidearen aprobetxamendu jasangarrian esku hartzen duten katebegien, eragileen eta jardueren multzo artikulatua, hala nola mintegien kudeaketa, birpopulaketa, hobekuntza genetiko eta basogintza, zura planifikatzea, moztea eta erauztea, eta lehen eraldaketa —zerratzea, lehortzea, sailkatzea, tratatzea eta prestatzea—.
13. Elikagaiak alferrik galtzea: elikakatetik hainbat arrazoiengatik baztertutako nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak, gizakiek kontsumitzeko guztiz jangarriak eta egokiak direnak eta, bestelako erabilerririk ezean, hondakin gisa baztertzen direnak.
14. Kalitate- eta jatorri-bereizgarriak: ezaugarri bereizgarriak dituen nekazaritzako edo elikagaigintzako produktu bat identifikatzeko balio du. Produktu hori erregelamendu edo baldintza-agiri batek babesten du, eta ezaugarri horiek betetzen direla ziurtatzen duen kontrol-sistema baten mende dago.
15. Nekazaritza- eta elikagaigintza-enpresak: nekazaritza- edo elikagaigintza-arloetan diharduten nekazaritza-ustiategien eta enpresen multzoa.
16. Nekazaritza-ustiategia: titularrak, pertsona fisikoak edo juridikoak, nekazaritza-jarduera gauzatzean, enpresa-mailan antolatutako ondasun, aktibo eta eskubideen multzoa, batez ere merkatu-helburuekin, eta berez unitate tekniko-ekonomikoa osatzen duena. Erregelamendu bidez, gainera, gutxieneko laborantza-dimentsio bat eskatu ahal izango da.
17. Nekazaritza-ustiategi asoziatiboa: hainbat bazkide biltzen dituen pertsona juridiko bati dagokion titulartasuna, estatutuen edo sozietate-forma erregulatzen duen araudiaren arabera.
18. Lehentasunezko ustiategia: familia-ustiategia edo gizarte-oinarrikoa, gaur egun bideragarria dena edo bideragarritasun hori lortu eta finkatu dezakeena, eta erregelamenduz ezarritako dimentsio- eta errentagarritasun-baldintzak betetzen dituena.
19. Landa-finka: ustiategi berekoak diren eta mugapearen ondorioetarako continuum bat osatzen duten partzelen multzoa.
20. Abeltzaintza estentsiboa: ekoizpen-sistema bat da, animaliak, batez ere, aire zabalean egoten dira, eta larreak erabiltzen dituzte elikatzeko.
21. Gastronomia: gizakiak bere elikadurarekin eta ingurumenarekin edo ingurunearekin duen harremana aztertzen duen diziplina.
22. Nekazaritzako elikagaien industria: nekazaritzako produktuak edo elikagaiak manipulatzeko eta produktu berriak lortzeko instalazioak eta ekipoak, enpresa gisa jardunez.
23. Nekazari gaztea: nekazaritza-jarduera egiten duen pertsona fisikoa, edo jarduera horretara sartzeko fasean dagoena, eta 41 urte baino gutxiago dituena.
24. One Health: ikuspegi integratua eta bateratzailea, pertsonen, animalien eta ekosistemen osasuna orekatzea eta optimizatzea helburu duena. Ikuspegi horrek onartzen du giza osasuna, animalien osasuna, landareen osasuna eta ingurumenaren osasuna estuki lotuta daudela, eta, beraz, sektore, diziplina eta diziplina anitzeko lankidetzak sustatzen du, mehatxu sanitarioak prebenitzeko, detektatzeko eta horiei eraginkortasunez erantzuteko.
25. Lurzatia: ekoizpen-unitate bati dagokion nekazaritza-lurzoruaren azalera mugatua.
26. Artisau-ekoizpena: Euskal elikagaien kultura kontserbatzen laguntzen duten elikagaiak manipulatzeko, egiteko eta eraldatzeko jardura da. Kontsumitzaileei azken produktu

individualizatua bermatzen die, kalitatezkoa eta ezaugarri bereizgarriak dituen, artisauaren esku-hartze pertsonala faktore nagusia den ekoizpen txiki kontrolatuei esker lortutakoa.

27. Sukaldaritza kolektiboa: leku berean, oro har erakunde edo enpresen barruan, dauden pertsona-taldeentzako janariak egiteko eta hornitzeko zerbitzuen multzoa.

28. Nekazaritzako elikagaien sektorea: nekazaritzako, abeltzaintzako, arrantzako, akuikulturako, ehizako eta mikologiako ekoizpen primarioa, haren eraldaketa, ontziratzea, banaketa eta merkaturatzea, bai eta baso-jatorriko elikagai-aprobetxamenduak ere, biltzen dituen sektore ekonomikoa.

29. Nekazaritza-sektorea: nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-ekoizpeneko jarduerak barne hartzen dituen sektore ekonomikoa.

30. Sektore gastronomikoa: sektore ekonomiko bat da, janariak eta edariak egiteko, aurkezteko, zerbitzatzeko eta kontsumitzeko jarduerak biltzen dituena —ostalaritza eta jatetxeak modalitate guztietan barne, bai eta sukaldaritza kolektiboa ere—, sukaldaritza-kulturaren prestakuntza-, ikerketa-, dibulgazio- eta sustapen-jarduerekin batera, euskal elikadura-kultura kontserbatzen, transmititzen eta proiektatzen laguntzen baitute.

31. Elikagaien segurtasuna: elikagaiak eta pentsuak osasunerako kaltegarriak ez direla eta kontsumorako egokiak direla eta elikadura-kate osoan zehar elikagaiei buruzko legeriaren printzipio eta betekizun orokorrak betetzen dituztela bermatzeko beharrezkoak diren baldintzen eta neurrien multzoa.

32. Ekosistema-zerbitzuak: nekazaritza-ustiategiak sortzen dituzten kanpo-efektuak edo ondasun publikoak dira, hala nola lurraldearen eta paisaiaren kudeaketa, karbonoa xurgatzea, ingurumena eta biodibertsitatea babestea eta landa-ingurunea mantentzea, merkatuak saritzen ez dituenak.

33. Ekoizpen- edo nekazaritza-azpisektoreak: nekazaritza-sektorea banatzen den ekoizpen-esparruetako bakoitza. Azpisektore produktiboak dira: esnetarako behiak, haragitarako behiak, baratzezaintza, ardi-esnea, mahastizaintza eta ardogintza, zereala, etab.

34. Nekazaritza-lurra: balio agronomikoa duen lursaila, nekazaritza-jarduera jasaten duena edo jasan dezakeena.

35. Ustiategiaren titularrak: nekazaritza-jarduera eta, hala badagokio, nekazaritza-jarduera osagarriak egiten dituen pertsona fisikoa edo juridikoa, ustiategia osatzen duten ondasunak eta eskubideak enpresa-irizpideekin antolatzen dituena, eta haren kudeaketak dakartzan arriskuak eta erantzukizunak bere gain hartzen dituena. Lege honen ondorioetarako, ustiategiaren titulartasuna pertsona fisiko batek baino gehiagok dutenean, horietako bakoitza titularkidetzat hartuko da.

1.- Nekazaritza-arloko euskal administrazioek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Osasun Sailarekin koordinatuta, albaitaritzako sendagaien erabilera arduratsua, zuhurra eta arrazionala sustatu eta bermatuko dute Euskal Autonomia Erkidegoko abeltzaintza-ustiategietan, funtsezko elementua baita animalien osasuna, elikagaien segurtasuna eta osasun publikoa babesteko, eta mikrobioen aurkako erresistentziak prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko.

2.- Horretarako, foru-organoetako nekazaritza-administrazioek:

- Albaitaritzako sendagaiak agintzeko, emateko, erabiltzeko eta erregistratzeko eskumena duten osasun-agintarien kontrola indartuko dute, eta ziurtatuko dute albaitariaren agindupean eta baimendutako baldintzen arabera soilik erabiltzen direla.
- Animalien ekoizpenean antimikrobianoen kontsumoa zaintzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko neurriak bultzatuko dituzte, farmaziaren eta osasun publikoaren arloko agintaritzak eskudunekin koordinatuta.

- Osasun-prebentzioa, biosegurtasuna, abeltzaintzako jardunbide egokiak eta animalien ongizatea sustatuko dituzte, antibiotikoen erabileraren beharra murrizteko lehentasunezko tresna gisa.
- Albaitarien, abeltzainen eta sektoreko gainerako agenteen prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatuko dituzte, mikrobioen aurkako erresistentzien arriskuari eta albaitaritzako sendagaien erabilera egokiari buruz.

3.- Hori guztia albaitaritzako sendagaien eta antimikrobianoekiko erresistentzien aurkako borrokaren arloan indarrean dagoen Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiarekin bat etorritz garatuko da, bai eta osasun bakarraren ikuspegiaren esparruan onartzen diren estrategiekien eta ekintza-planekin bat etorritz ere (One Health).

**41. artikulua.- Gaixotasunak eta prozesu patologikoak jakinaraztea**

1.- Animalien jabeek edo arduradunek, merkatariak, inportatzaileak, esportatzaileak, garraiolariak eta animalien osasunarekin lotutako jarduerak egiten dituzten profesionalak, pertsona fisikoak edo juridikoak izan, berezko agerraldi guztien berri eman beharko diote dagokion foru-organoko nekazaritza-administrazioari, baldin eta gaixotasun epizootikoen berri badute edo gaixotasun horien susmoa badute, edo gaixotasun horien birulentzia berezia, oso larria edo hedapen azkarra dela-eta kutsatzeko arriskua badakarte animalientzat, etxeoentzat edo basatientzat, edo benetako arriskua badute osasun publikorako edo ingurumenerako. Arestian deskribatutako betebeharrak lagun egiteko eta esperimintatzeko animalien kasuetara ere hedatzen dira.

2.- Era berean, nahitaezkoa da dagokion foru-organoko nekazaritza-administrazioari edozein prozesu patologikoren berri ematea, baldin eta, aipatutako ezaugarriak izan ez arren, nahitaez aitortu beharreko animalien gaixotasunen zerrendetan jasotako gaixotasunetako bat delako susmoa sortzen badu.

3.- Nekazaritza-arloko euskal administrazioek alerta-protokoloak egingo dituzte animalien osasunaren arloan, inplikaturako eragileen koordinazio egokia eta esku-hartze azkarra bermatzeko, alertek eragin ditzaketen arriskuak minimizatzeko neurri egokiak hartuko direla ziurtatzeko. Gaixotasun zoonotikoen kasuan, koordinazio hori Osasun Sailera ere hedatuko da.

**42. artikulua.- Animalia-jatorriko azpiproduktuak**

1.- Abeltzaintza-ustiategietako titularrek, animalia hilen edo beren abeltzaintza-jardueran sortutako animalia-jatorriko edozein azpiprodukturen, simaurra eta minda, besteak beste, jabeek eta edukitzaileek kudeaketa higienikoa egin beharko dute, indarrean dagoen araudian ezarritako manipulazio- eta lekualdatze-baldintzak betez.

2.- Gizakiek jateko ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuak eta produktu deribatuen identifikatzeko, sailkatzeko, biltzeko, garraiatzeko, biltegitzeko, manipulatzeko, eraldatzeko, erabiltzeko edo ezabatzeko eragiketak, bai eta merkaturatzea ere, Euskal Autonomia Erkidegoan gizakiek jateko ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuen arloko funtzioak antolatze eta banatzeko indarrean dagoen araudiak arautuko ditu.

3.- Abeltzaintza-ustiategietan sortutako simaurrak eta mindak behar bezala biltegitzeko eta kudeatzeko erantzukizuna ustiategi horien titularrei dagokie, indarrean dagoen araudiaren arabera. Simaur, minda edo animalia-jatorriko beste azpiproduktu batzuen bilketa, kontzentrazioa eta tratamendua ustiategiak bestelako establezimenduek egiten dutenean, operadore horiek baimenduta eta erregistratuta egon beharko dute indarrean dagoen SANDACH araudiaren arabera, eta trazabilitatea bermatu beharko dute merkataritzako dokumentuen eta sistema ofizialen bidez. Lan horiek, gutxienez, urtean behin jakinarazi beharko zaizkie foru-organoko eskudunari, eta erabilitako ibilgailuen, bilketa-sareen eta hartutako biosegurtasun-neurrien xehetasunak eman beharko zaizkie.

4.- Nekazaritza-arloko euskal administrazioek animalia-jatorriko mindak eta hondakinak tratatzeko beharrezkoak diren azpiegituren garapena sustatuko dute, bai eta ongarri gisa lehenetsitako aplikazioa bultzatzea ere.

**43. artikulua.-** *Animalia-arraza autoktonoak*

- 1.- Nekazaritza-arloko euskal administrazioek animalia-arraza autoktonoak mantentzea eta garatzea sustatu eta bultzatuko dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- 2.- Nekazaritza-arloko euskal administrazioek euskal arraza autoktono guztiak eta horien ekoizpenak eraginkortasunez babestea izango dute lehentasunezko helburu.
- 3.- Arraza autoktonoko etxeko animalien arloan, Etxeko Animaliak Babesteko ekainaren 30eko 9/2022 Legearen 30. artikuluan xedatutakoa beteko da.

**44. artikulua.-** *Etxeko animalien babesa*

Etxeko animalien babesa eta erregistroa, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Etxeko Animaliak Babesteko ekainaren 30eko 9/2022 Legearen bidez arautuko da, eta, osagarri gisa, Animalien Eskubideak eta Ongizatea Babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legean xedatutakoaren arabera.

#### **IV. KAPITULUA Basogintza iraunkorra**

**45. artikulua.-** *Basogintza*

- 1.- Basogintza-ekoizpenak, EAEko nekazaritza-sektorearen jarduera estrategiko eta tradizional gisa, zuraren eta paperaren balio-katean duen eginkizunagatik, bai eta lurraldearen kudeaketa jasangarrirako eta suteen prebentziorako duen gaitasunagatik ere, EAEko nekazaritza-administrazioen laguntza izango du, bere eskumenen esparruan, haren jasangarritasuna bermatzeko, merkatu globalizatuaren erronken aurrean lehiakortasuna indartzeko eta lurraldean finkatutako industria eraldatzaileari tokiko lehengaiaren hornidura bermatzeko.
- 2.- Baso-ekoizpenaren antolamendua eta kudeaketa foru-aldundien eskumen eskusiboa da, eta eremu horiek mendiei buruzko foru-arauen eta baso-antolamenduko planen bidez garatzen dira.
- 3.- Nekazaritza-arloko euskal administrazioek, aldi behin, baso-baliabideen inbentarioak egingo dituzte, titulartasun publikoko zein pribatuko lursailei dagozkienak. Era berean, basoen ustiapenetik eratorritako produktuak hobetzeko, baso lurretako zuhaitz-estalduraren sustapen bateratua bateratzeko eta baso-sistemen funtzionaltasunari eta erresilientziari eusteko jarduketak sustatuko dituzte, baso-kudeaketa jasangarriaren eta estatuan eta nazioartean aitortutako baso-ziurtagiriaren aldeko apustuaren bidez.
- 4.- Nekazaritza-arloko euskal administrazioek lehentasuna emango diete ofizialki kontrolatutako kalitatezko haziak eta landareak erabiltzeari, ikerketa-proiektuak gauzatzeari, garapen teknologikoari eta berrikuntzari, eta ingurumena errespetatzen duten eta klima-aldaketaren erronketara egokituta dauden baso-teknikak aplikatzeari.
- 5.- Ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-proiektuen helburua izango da Euskal Autonomia Erkidegoan dauden espezieak hautatzea, hobetzea eta ugaltzea, bai eta haien errentagarritasun ekonomikoa optimizatzea eta aplikatzeko baso-teknika berriak aztertzea ere.
- 6.- Basogintzari dagokionez, foru-organoetako basogintza-administrazioek modu orekatuan bultzatuko dituzte espezie autoktonoak dituzten basoberritzeak eta basoen eta artzaintzaren kudeaketa.

**46. artikulua.-** *Baso-pistak*

Foru-organoetako baso-administrazioek baso-pisten plangintza, garapena eta mantentzea sustatuko dute, irizpide tekniko egokien arabera, baso-jarduerarako sarbidea eta eraginkortasuna bermatzeko, bai eta suteen babesean duten zeregina ere, ingurumen-inpaktua minimizatzen saiatuz. Era berean, eguneratuta eta eskuragarri edukiko dute beren lurralde historikoko baso-pista nagusien inbentarioa, kontserbazio-egoerari, funtzionaltasunari eta esku hartzeko premiei buruzko informazioa barne.

**47. artikulua.-** *Basogintzako ziurtagiri iraunkorra*

Nekazaritza-arloko euskal administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoko basoen ingurumen-balioa zaintzeaz arduratuko dira. Horretarako, basoen kudeaketa arduratsua egingo dute, eta basogintzako produktuak modu iraunkorrean kudeatutako basoetatik datozela bermatuko dute, ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-irizpideen arabera. Horretarako, alor horretako baso-ziurtagiriak bultzatuko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan.

**48. artikulua.- Baso-osasuna**

1.- Foru-organoetako baso-administrazioek beren lurraldeko baso-osasuna betetzearekin lotutako politikak garatuko dituzte, eta, besteak beste, honako neurri hauek bermatuko dituzte: basoen osasun-egoera hobetzeko ikerketa fitosanitarioko lanak indartzea, detekzio goiztiarraren bidez, barietate erresistente berriak bilatuz, prebentzio-tratamenduen metodoak hobetzea eta jatorritik ofizialki egiaztatutako kalitatea duten ugalketako baso-materialen erabilera indartzea.

2.- Aipatutako helburuak lortzeko, baso-osasuneko mahaia aldian-aldian deituko da, Baso Osasuneko Mahaia sortu eta arautzen duen irailaren 7ko 231/2010 Dekretuan edo hura ordeztzen edo aldatzen duen araudian xedatutakoaren arabera.

**49. artikulua.- Baso-suteak**

1.- Foru-organoetako baso-administrazioek neurriak hartuko dituzte nekazaritza-lan jakin batzuek baso-suteak sortzea saihesteko, bereziki baldintza meteorologikoen sute horien arriskua areagotzen dutenean. Horretarako, zeregin horiek mugatu edo aldi baterako debekatu ahal izango dituzte.

2.- Foru-organoetako baso-administrazioek baso-suteen prebentzioa zaindu beharko dute, baso-suteen arloan indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik, eta, besteak beste, honako jarduketak hauek sustatuko dituzte:

- a. Basoen kudeaketa bertan behera uztea saihesteko eta lehengoratzeko prebentzioa eta zaintza.
- b. Baso-tratamendu egokiak aplikatzea eta baso-sistemetan material erregaia eta biomasa ezabatzea eta garbitzea.
- c. Babes-azpiegiturak mantentzea eta suteak prebenitzeko jarduera eraginkorrak garatzea.
- d. Baso-artzaintza sustatzea baso-suteak prebenitzeko neurri gisa, hainbat baso-artzaintza maneiu diseinatuz eta ezarriz, bereziki artzaintza birakaria, zona bakoitzaren potentzialtasunarekin bat etorritik, artzaintza digitalizatzeko tresnen laguntzarekin, eta nekazaritza eta basozaintzako ustiapenean integratuz dibertsifikaziorako eta errentagarritasunerako aukera gisa.
- e. Gainera, mendi publikoetarako, baso-larratzea nahitaezko neurri gisa ezartzen da baso-birsorkuntzan edo mendi publikoetan bestelako mugarik ez duten eremuetan, etxeo animaliak aziendaren titularrekin lankidetzan erabiliz. Klima-aldaketaren aurrean, baso-artzaintzari ekingo diote baso-suteak prebenitzeko neurri gisa, eta hainbat baso-artzaintza mota diseinatu eta ezarriko dituzte, bereziki artzaintza birakaria, eremu bakoitzaren potentzialtasunarekin bat datozenak, artzaintza digitalizatzeko tresnen laguntzarekin, eta nekazaritza eta basozaintzako ustiapenean integratuko dituzte dibertsifikaziorako eta errentagarritasunerako aukera gisa.

3.- Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, helburu hauek dituzten jarduerak koordinatuko dituzte:

- a. Hiri- eta baso-eremuetan suteak prebenitzea, landare-erregaia murrizteari eta landa-gune kalteberak babesteari lehentasuna emanaz. Neurrien artean egon daitezke arrisku handiko eremuetako joan-etorriak aldi baterako mugatzea, eraikinen mugakide diren lurzatiak nahitaez garbitzea eta babes-zerrendak finkatzea, indarrean dagoen araudiaren eta aitortutako jardunbide egokien arabera.

- b. Gizartea sute-arriskuen aurrean informatzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak garatzea, komunikazio-programa eta -tresna egokienak erabiliz.
- c. Suteak zaintzeko sistemak.

4.- Euskal administrazioak behar diren baliabideez hornituko dira, beren eskumeneko lurralde-eremuan gertatzen diren baso-suteen aurrean ahalik eta arreta eta eraginkortasun handienarekin jarduteko.

### **III. TITULUA.- ELIKAGAIEN BALIO-KATEAREN ETA EGURRAREN BASO-BALIOAREN KATEAREN ANTOLAMENDUA**

#### **I. KAPITULUA Elikagaien balio-katean ekoizpen-sektorea indartzea**

##### **50. artikulua.- Nekazaritza-jardueraren enpresa-izaera**

1.- Lege honen ondorioetarako, nekazaritza-jarduera enpresa-jardueratzat hartzen da, hau da, ustiategi batek bere ondasunak edo zerbitzuak elikakatean edo zuraren katean ekoizteko eta merkaturatzeko egiten dituen jardueren multzoa, errentagarritasun ekonomikoa lortzeko.

2.- Nekazaritza-arloko euskal administrazioek gure lurraldeko ustiategi aktiboen errentagarritasun ekonomikoa hobetzeko tresnak eta jarduerak sustatuko dituzte, eta arreta berezia jarriko diote balio-kateko ekoizpen-sektorea indartzeari.

##### **51. artikulua.- Ekoizpen-sektoreak balio-katean duen negoziazio-ahalmena indartzeko jarduketak eta tresnak**

Nekazaritza-arloko euskal administrazioek honako tresna eta jarduketa hauek ezartzea bultzatuko dute, lau lan-ildotan egituratuta:

- a) Euskal ekoizpen-sektorearen lehiakortasun-aldagai nagusiei lotutako jarduerak:
  - 1. Eskaintzaren taldekatzea sustatzea, kateko operadoreen atomizazioaren eragina murrizteko.
  - 2. Ekoizpenen kalitatea bultzatzea eta balioestea.
  - 3. Eskaintzaren logistika hobetzea, nekazaritzako produktuen izaera galkorraren inpaktua minimizatzeko.
- b) Euskal nekazaritza-ekoizpen nagusien xede-merkatuak hautatzera eta ezagutzera bideratutako jarduerak:
  - 1. Hurbileko merkatuen garapena eta laguntza sustatzea, nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretatik eta horien eraldaketatik datozen produktuen zuzeneko salmenta eta merkaturatzea barne.
  - 2. Nekazaritza-produkzioen presentzia sustatzea HORECA kanalean.
  - 3. Merkatu-nitxo berrien identifikazioa eta aprobetxamendua sustatzea.
  - 4. Beste merkatu potentzial batzuetan sartzeko eta kokatzeko ekintzak garatzea.
- c) Elikakatearen funtzionamendua eta prezioen eraketa hobetzeko jarduketak:
  - 1. Merkatuen gardentasuna indartzea, elikagaietzako erreferentzia-prezioak sortuz eta martxan jarri.
  - 2. Laguntza-ildoak ezartzea ekoizleak jatorrizko merkatuetara sar daitezen errazteko, nekazaritzako lehengaien etorkizuneko merkatuetan jarduteko gaikuntza sustatzeko eta merkatu berriak sortzen laguntzeko.

3. Balio-katearen funtzionamenduan distortsioak prebenitzeko eta zuzentzeko neurriak ezartzea.
  4. Elikakatearen funtzionamendua hobetzeari buruz indarrean dagoen araudian aurreikusitako tresnak garatzea.
- d) Zeharkako jarduerak
1. Elikagai-hondakinak murriztea hornidura-katearen hasierako faseetan, nekazaritza-produktuen balio-galera minimizatuz.
  2. Lurraldean finkatutako ekoizpen-azpisektore nagusien errentagarritasun ekonomikoa hobetzea.
  3. Euskal nekazaritza-ustategiei finantzaketa eskuratzen laguntzea.

**52. artikulua.- Nekazaritza-eskaintzaren elkartea**

1.- Nekazaritza-arloko euskal administrazioek, beren eskumenen esparruan, ustategietatik datozen izaera bereko ekoizpenen eskaintza elkartzea bultzatuko dute, sektoreak balio-katean duen negoziazio-ahalmena indartzeko funtsezko bide gisa.

2.- Elikagaigintzaren arloan, beharrezkotzat joko da:

- a) Ekoizleak kooperatibetan eta ekoizle-elkarteetan sartzea, haien dimentsioa handitzea sustatuz.
- b) Ekoizleen kooperatibak sor daitezen sustatzea, eta lehendik dauden ekoizleen kooperatibak zabaldu eta fusionatzea.
- c) Ekoizpenak elkarrekin merkaturatzen dituzten nekazarien elkarteak sor daitezen bultzatzea, bai eta lehendik dauden elkarteak handitzea ere, baterako banaketa-jarduerak garatzea eta baterako salmenta-plataformak ezartzea sustatuz.
- d) Elikagaien lanbide arteko erakundeak sortzea eta garatzea, sektorea egituratzeko, katearen funtzionamendua hobetzeko eta prestakuntza eta profesionalizazioa bultzatzeko.
- e) Eskaintza biltzea eta ekoizpen- eta merkaturatze-egiturak optimizatzea helburu duen beste edozein elkartee-eredu sortzea.

3.- Basogintzaren arloan, kontuan hartuko da ahalik eta ustategi gehien biltzen dituen zuhaitz-hegaldia elkarrekin kudeatzeko erakundeak sortzea.

4.- Aurreko puntuetan deskribatutako jardueri dagokienez, nekazaritza- eta elikagaigintza-arloko euskal administrazioek laguntza-programa espezifikoak diseinatu eta ezarriko dituzte.

**53. artikulua.- Kalitatea sustatzea eta ekoizpenak bereiztea**

1.- Nekazaritza-arloko euskal administrazioek, beren eskumenen esparruan, beren lurraldean ekoiztutako nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen kalitatea hobetzeko programak garatuko dituzte, merkatuak ingurumena eta kontsumitzaileen osasuna errespetatzen dutela eta ezaugarri fisiko-kimiko, organoleptiko eta nutritibo onak dituztela aitortuz. Programa horien helburua izango da jatorri eta kalitate bereiziko ekoizpena handitzea, bai eta euskal elikagai- eta gastronomia-ondarea indartzea eta balioestea ere.

2.- Horretarako, egokitutako joko dira jarduerak hauek:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoan aitortutako jatorri- eta kalitate-bereizgarrien kudeaketa egokia sustatzea eta bermatzea, bereziki ziurtapenaren eta kontrolaren arloan, arreta berezia jarriz jatorri-deiturei, adierazpen geografiko babestuei, ekoizpen ekologiko ziurtatuari eta berme-markei eta nekazaritza- eta elikagaigintza-arloan eskumena duen Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak baimendutako beste bereizgarri batzuei.

- b) Euskal elikagaien sektoretik datozen nekazaritzako elikagaien ekoizpen berrietarako kalitate- eta jatorri-bereizgarriak ezartzea eta sustatzea.
- c) Europar Batasunean onartutako hobekuntza genetikoko teknologien bidez lortutako produktuak garatzea, hobekuntza berritzaile eta tradizionalaren osagarri gisa, klima-aldaketara egokitzen eta sektorea bereizten eta lehiakorrago egiten lagunduz.
- d) Euskal nekazaritza-ondare genetikoa berreskuratzea eta kontserbatzea bideratutako praktikak bultzatzea.
- e) Basogintzari dagokionez, baso-kudeaketa jasangarria ziurtatzen duten baso-kudeaketa bultzatzea, baso-ekoizpena modu jasangarrian kudeatutako basoetatik datorrela ziurtatzeko berme egiaztatu eta independente gisa.

**54. artikulua.- Jatorri- eta kalitate-ikurren araubidea**

1.- Halakotzat hartuko dira:

- a) Jatorri-deitura babestuak (JDB) eta adierazpen geografiko babestuak (AGB).
- b) Ekoizpen ekologikoa.
- c) Berme-markak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen sailak baimendutako beste bereizgarri batzuk.
- d) Espezialitate Tradizional Bermatuak (ETG).

2.- Jatorri- eta kalitate-ikurren kudeaketa erakunde publiko edo pribatuei dagokie, baldin eta ikur horien erregelamenduak eta baldintza-agiriak betetzen direla zaintzen badute, enpresa, produktu, zerbitzu edo pertsona jakin bat arau edo espezifikazio teknikoetan definitutako betekizunekin bat datorrela ezartzeko.

3.- Jatorri- eta kalitate-bereizgarrien kontrola egiten duten erakunde pribatu edo publikoek, kasu guztietan, irismen espezifiko bakoitzerako, UNE ISO/IEC 17020:2012 araua bete beharko dute, hura ordeztzen edo osatzen duena, kontrol- eta ikuskapen-lanetarako, eta UNE-ISO/IEC 17065:2012 araua edo hura ordeztzen edo osatzen duen araua, produktuak ziurtatzeko. ENAC akreditazio-betekizunetik salbuetsita geratuko dira berme-marken eta elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen Autonomia Erkidegoko Administrazioari sailak baimendutako beste bereizgarri batzuen kontrola eta ziurtapena. Erakunde horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Produktuen Kontrol eta Egiaztapenerako Erakundearen Erregistroan inskribatuta egon beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Produktuen Kontrol eta Egiaztapenerako Erakundearen Erregistroa sortu eta arautzen duen maiatzaren 10eko 93/2011 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen sailak zainduko du kalitate- eta jatorri-ikurrek babestutako nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak behar bezala ziurtatuta daudela, eta kontrol- eta ziurtapen-erakundearen funtzionamendu erregularra gainbegiratuko du.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoan araututako kalitate- eta jatorri-ikurrak dituzten euskal produktuen etiketetan agertzen diren nahitaezko datuak eta borondatezko informazio gehigarri guztiak baldintza-agiritan eta erregelamendu teknikoetan xedatutakoaren arabera agertuko dira, eta, betiere, indarrean dagoen araudia betetzearen mende.

**55. artikulua.- Artisau-ekoizpena**

1.- Nekazaritza-arloko euskal administrazioek artisau-ekoizpenaren garapena zainduko dute. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza-gaietan eskumena daukan sailak arautuko du ekoizpen hori, erregelamendu bidez.

2.- Araudiak, besteak beste, babestutako ekoizpen motak, higiene- eta osasun-baldintzak, kudeaketa- eta kontrol-sistema eta Artisau Ekoizleen Erregistroaren sorrera jasoko ditu. Nolanahi

ere, artisau-ekoizpenak lege honen III. tituluaren jasotako printzipioak errespetatu beharko ditu: identifikazioa, elikagaien segurtasuna eta trazabilitatea.

**56. artikulua.-** *Nekazaritzako elikagaien logistika hobetzea*

1.- Nekazaritza-ardoko euskal administrazioek, beren eskumenen esparruan, nekazaritza-elikagaien ekoizpenak balio-katean merkataritza-posizionamenduko baldintza onenetan tratatzeko eta eskuratzeko logistika hobetzeko jarduerak bultzatuko dituzte, elikagai-xahubidea murrizten laguntzeko.

2.- Honako jarduera hauek beharrezkotzat joko dira:

- a) Urtean zehar nekazaritzako elikagaien eskaintza dibertsifikatzeko aukera emango duten neurriak bultzatzea, merkatuak etengabe hornitzeko eta eskaintza aldi laburretan kontzentratzea saihesteko.
- b) Teknologia eta tresna digital berritzaileak garatzea, gure nekazaritzako elikagaien ekoizpenen biltegitratzea eta garraioa hobetzeko, kostu logistikoak murrizte aldera.
- c) Nekazaritzako elikagaien eskaintza taldekatzeko instalazioak eta azpiegiturak sortzea eta hobetzea sustatzea, gaitasun logistikoa handitzeko eta merkatuetarako banaketan garraio-kostuak optimizatzeko.
- d) Ekoizpen-sektorearen eta balio-kateko eragileen arteko kontratu-lankidetzarako irtenbide berritzaileak sustatzea, bai ekoizpenaren aurreko faseetan (ibaian gora), bai ondorengoetan (ibaian behera), merkataritza-harremanetan efizientzia, egonkortasuna eta ekitatea hobetzeko.

**57. artikulua.-** *Nekazaritzako elikagaien merkatuetan sartzea eta kokatzea*

1.- Nekazaritza- eta elikagaigintza-ardoko euskal administrazioek, beren eskumenen esparruan, produktioek merkatuetan duten posizionamendua hobetzera bideratutako jarduerak bultzatuko dituzte, ekoizleei eta elaboratzaileei lehiakortasun handiagoa eta prezio bidezko ordainsari hobeagoa lortzeko.

2.- Jarduera hauek izango dute lehentasuna:

- a) Hurbileko merkatuen arloan:
  1. Oro har, lehentasuna emango zaie nekazaritza-ekoizpenak merkaturatze-zirkuitu laburretara iristea errazten duten jarduerari, bitartekotza-kostuak ezabatzen edo murrizten badituzte.
  2. Tokiko azoka eta merkatuetan sartzeari dagokionez, Hurbileko salmentaren bidez merkaturatutako elikagaien baldintza higieniko-sanitarioei, trazabilitateari, etiketatzeari eta publizitateari buruzko apirilaren 30eko 51/2024 Dekretuan eta haren eguneratzeetan ezarritako betekizunen eta xedapenen arabera jardungo da.
  3. Nekazaritzako elikagaiak hurbileko merkatuetan merkaturatzen dituzten ekoizleek software bat izan beharko dute, ondasunen edo zerbitzuen entrega dokumentatzen duten fakturen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzeko.
  4. Lehentasunez sustatuko da titulartasun publikoko jantoki kolektiboek tokiko produktuak ematea, elikadura-eredu osasungarriak eta jasangarriak sustatuz, eta kulturalki euskal gastronomiari lotuta.
- b) HORECA kanaleko merkatuen arloan:
  1. HORECA kanalak euskal nekazaritzako elikagaien erosketa sustatzea, bereziki kalitate-bereizgarri baten babespekoena. Horretarako, bereizgarri bat diseinatu eta ezarriko da,

erregelamendu bidez, agintaritza eskudunaren aurrean egiaztatzen duten establezimenduentzat.

2. Nekazaritzako elikagaien ekoizpenak sustatzeko ekintzak sortzea Euskal Autonomia Erkidegoko ostalaritza-establezimenduetan.
- c) Merkatu-nitxo berriei dagokienez, euskal nekazaritzako elikagaien ekoizpen nagusiak sustatu eta merkaturatuko dituzten guneak eta dendak sortzea bultzatuko da, bereziki kalitate-bereizgarri batek babestutakoak, aireportuetako terminaletan, gurutzaldietan eta Euskal Autonomia Erkidegoko garrantzi turistikoko beste leku batzuetan, bai eta horiek kanpoko merkatuetan sustatzea ere.
- d) Merkaturatzearen arloan, lehentasuna emango zaio nekazaritzako elikagaien salmenta-prezioak zaintzeari, merkataritza-establezimenduetan galeretarako salmenta saihesteko, Euskadiko Elikaduraren eta Zuraren Katearen Behatokia jasotako ekoizpen-kostuei dagokienez, eta, hala badagokio, agintaritza eskudunak ikuskapen- eta zehapen-lana egingo du, Elikakatearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko maiatzaren 7ko 57/2024 Dekretuan edo hura ordeztzen duen araudian xedatutakoaren arabera.

**58. artikulua.- Balio-katearen funtzionamendu orekatua**

1.- Nekazaritzaren euskal administrazioek, beren eskumenen esparruan, elikagaien eta zuraren balio-kateak behar bezala funtzionatzen duela zainduko dute, kate horietan esku hartzen duten eragileen kontratu-harremanak urratzen dituzten jokabideak prebenitzeko eta, hala badagokio, zehatzeko, arreta berezia jarriz euskal ekoizpen-sektorearen defentsan.

2.- Horretarako, beharrezkoak diren tresnak garatuko ditu nekazaritza-merkatuen ezagutza eta zaintza ekonomikoa hobetzeko, eta alerta goiztiarreko sistema espezifikoak ezarriko ditu, sektoreei eta administrazioei errazteko bai ezusteko egoera ekonomiko, klimatiko, ingurumeneko, sozial edo bestelakoen aurrean prebentzio-neurriak hartzea, merkatuen eta balio-katearen funtzionamenduan nahasmenduak eragin ditzaketenak, bai berehalako eta eraginkortasunez erantzutea, ezusteko egoera horien inpaktua arintzeko.

3.- Elikakatearen arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Elikakatearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko maiatzaren 7ko 57/2024 Dekretuan eta haren ondorengo aldaketetan xedatutakoaren arabera jardungo du, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko Elikakatearen Behatokiari dagokionez, prezioen eta ekoizpen-kostuen indizeak argitaratzeari eta aldian behin eguneratzeari dagokionez, prezioen indizeak eratzean gardentasuna eta objektibotasuna bermatzen duten eta erregelamendu bidez zehazten diren irizpideen arabera, eta Elikagaien Kontratazioko Merkataritza Jardunbide Egokien Kodearen arabera.

**59. artikulua.- Nekazaritza-azpisektoreen errentagarritasuna hobetzea**

1.- Oro har, nekazaritza-arloko euskal administrazioek, beren eskumenen esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean finkatutako ekoizpen-azpisektore nagusien errentagarritasun ekonomikoa handitzeko laguntza-jarduerak eta -programak bultzatuko dituzte.

2.- Jarduera hauek lehentasuna izango dute:

- a) a) Bost urtean behin, azpisektore-planak egitea eta/edo eguneratzea, Euskal Autonomia Erkidegoan finkatutako ekoizpen- eta elikadura-azpisektore nagusien egoeraren, bilakaeraren eta errentagarritasunaren diagnostiko xehatua jasotzen dutenak, lege honen 10. artikulua 1.b) puntuan xedatutakoaren arabera, haien indarguneak, ahuleziak, aukerak eta mehatxuak identifikatuz, eta epe ertain-luzerako estrategiak eta esku-hartze publikoak errentagarritasuna eta jasagarritasuna hobetzera bideratuko duten jarduera-ildo espezifikoak ezarriz.
- b) Euskal nekazaritzako elikagaien eta basogintzaren sektoreko jardueraren kontu makroekonomiko nagusien jarraipen ofiziala, sistematikoa eta eguneratua egitea, bai eta

Nekazaritzako Kontabilitate Euskal Sarearena ere (NKAES), aldian-aldian sektoreko eragileei eta administrazio eskudunei hedatzea bermatuz, erabaki estrategikoak hartzeko tresna gisa.

- c) Nekazaritza- eta elikagaigintza-ekoizpenen dibertsifikazioa sustatzea, errentagarritasun- eta lehiakortasun-potentziala duten nekazaritza-jardueraren nitxo berriak bultzatuz, eta nekazaritza-jarduerak jarduera turistikoekin bateragarri egiten lagunduz. Horretarako, berariazko laguntza-programak garatuko dira, ureztapenaren erabilera eta garapena barne. Ildo horretan, ureztatzaileen komunitateei zuzendutako finantzaketa publikoa eskatzen duten nekazariak sarbide librea izatearen mende egongo da, eta gardentasunaren, diskriminaziorik ezaren eta jasangarritasunaren irizpideak bermatuko dira. Programa horiek nekazaritza-dibertsifikazioko proiektu pilotuak eta esperientzia berritzaileak babestu ahal izango dituzte, lurraldeko ustiatzei emaitza praktikoak eta erreplikagarriak helarazteko.

**60. artikulua.- Sektoreko finantza- eta zerga-tresnak**

1.- Nekazaritza-arloko euskal administrazioek, beren eskumenen esparruan, nekazaritza-sektorerako finantza-tresna espezifikoak sortzea eta garatzea bultzatuko dute, ekoizleek zirkulatzailaren finantzaketa eta inbertsio produktiboak lortzea errazteko. Arreta berezia eskainiko zaie sektorean sartzen diren gazteei, lurzorua erosteari, bai eta kooperatibek eta ekoizleen elkarteek inbertsioak egiteari ere, lehendik dauden laguntza-lerroak osatuz.

2.- Foru-administrazioetan nekazaritzaren arloan eskumena duten sailek, ogasunaren eta finantzen arloan eskumena duten sailekin lankidetzan, nekazaritza-jarduerari lotutako balizko salbuespen edo onura fiskalak esploratu, aztertu eta, hala badagokio, ezarriko dituzte, gizarteari eskaintzen dizkioten zerbitzu ekosistemikoen eta ekoizpen-ereduekiko klima-mendekotasunaren konpentsazio gisa.

**II. KAPITULUA Elikagaien industria eta zura eraldatzeko industria**

**61. artikulua.- Nekazaritzako elikagaien industriaren garapena eta modernizazioa**

1.- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza-gaietan eskumena daukan sailak nekazaritzako elikagaien industria garatzen lagunduko du, industriaren errentagarritasuna, lehiakortasuna eta jasangarritasuna indartzeko. Horretarako, ekonomia sustatzeko programa espezifikoak ezarriko ditu, honako arlo hauetan eraginkortasuna eta modernizazioa errazteko:

- a) Arau- eta finantza-ingurunea: arau-esparrua hobetzea, sinplifikatzea, egokitzea eta arintzea, bai eta finantza-tresna lagungarriena ere – laguntzak, kredituak, leihatila bakarra-, enpresa-proiektuak eta -ekimenak gauzatzea errazteko.
- b) Eraldaketa digitala eta 4.0 industria: automatizazio-soluzioak, lean metodologiak eta 4.0 teknologiak ezartzea, hala nola big data, adimen artifiziala, robotika, sentsorika aurreratua, etab., efizientzia eta lehiakortasuna optimizatzeke.
- c) Marketin aurreratua eta elikadura-katea berrabiaraztea: tokiko marka eta marketin-estrategia berritzaileak indartuz (digitala, kalitatea, hurbiltasuna), barneko eta kanpoko merkatuan posizionamendua eta salmentak hobetzeko.
- d) Teknologia- eta produktu-berrikuntza: elkarlaneko I+G bultzatzea, produktuaren garapen berriak, eta produkzio-prozesuen eta teknologia-transferentziaren hobekuntzak, zentro teknologikoen eta funts publikoen laguntzarekin.
- e) Euskadiren gastronomia nazioartean hedatzea eta proiektatzea erreferente gisa, euskal nekazaritzako elikagaien industria sustatuz nazioarteko irismeneko marka baten bidez, merkataritza-misio, azoka eta foro espezializatuetan parte hartuz, eta talentu kualifikatua erakartuz eta sendotuz, merkatu globalean duen posizionamendua eta presentzia indartzeko.
- f) Deskarbonizazioa eta ekonomia zirkularra: emisioak eta hondakinak murrizteko planak ezartzea, energia berriztagarriak txertatzea eta ekonomia zirkularreko proiektuak garatzea.

- g) Enpresak sendotzea eta lankidetzan aritzea: bat-egiteak, enpresa-taldeak eta aliantza estrategikoak sustatzea, masa kritikoa handitzeko, kostuak murrizteko eta baterako inbertsioa indartzeko.
- h) Erakarpene, garapene eta belaunaldi-errelebo: sektorean talentu gaztea eta askotarikoa sar dadin sustatzea, belaunaldi-erreleboa erraztuz eta lan-baldintzak hobetuz, langile kualifikatuak, motibatuak eta inplikatuak izateko.
- i) Kalitatezko nekazaritzako eta elikagaigintzako lan-merkatua sustatzea, lan-ingurune seguruak, inklusiboak eta sozialki arduratsuak sortuz, enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea bultzatzeko, etengabeko prestakuntza eta lanbide-gaikuntza bultzatzeko, eta sektoreak bere lanpostuetan talentua erakartzeko, atxikitze eta aktiboki mantentzeko duen gaitasuna indartzeko. Neurri horiek jarraitutasun operatiboa hobetzen, nahi ez den txandakatzea murrizten eta sektorearen epe luzerako lehiakortasuna eta jasangarritasuna indartzen lagunduko dute.
- j) Hornidura-erresilientzia: lehengaien hornidura egonkorra eta segurua bermatzea, funtsezko hornitzaileekin akordioak eginez, jatorriak dibertsifikatuz eta hornidura-katean arriskuen kudeaketa proaktiboa eginez.
- k) Azpiegitura partekatutako eta hubak: elikadurako polo industrial eta teknologikoak bultzatzea, instalazio eta zerbitzu partekatuekin (biltegiratzea, laborategiak, prestakuntza- eta gaikuntza-espazioak), enpresei laguntzeko eta enpresa-ekimen berriak instalatzeko.

2. Euskal administrazioek lehentasuna emango diete nekazariak eta, bereziki, kooperatibek eraturako edo haien partaidetza duten nekazaritzako elikagaien industriei.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza- eta elikagaigintza-gaietan eskumena daukan sailak elikaduraren euskal klusterraren eta azpisektoreetako beste kluster batzuen garapene eta hedapene sustatuko du, enpresa elkartuen lehiakortasuna eta hazkundea hobetzeko, merkatura eta kontsumitzaileara etengabe egokituz, berrikuntza bultzatuz eta teknologia berriak integratuz.

4.- Era berean, kudeaketa administratiboa eta nekazaritzako elikagaien enpresa eta erakundeei aplikatu beharreko kontrolak sinplifikatzea bultzatuko du, indarrean dagoen araudiaren esparruan, haien jarduera eta lehiakortasuna errazteko.

**62. artikulua.-** *Nekazaritzako elikagaien eta zuraren eraldaketaren industrien eskubideak eta betebeharrak*

1.- Nekazaritza- eta elikagaigintza-arloan industria-jarduera egiten duten pertsona fisiko edo juridikoek eskubidea izango dute enpresa-esparru lehiakor eta ireki batean jarduteko, beren negozio-egitura definitu eta merkatuaren beharrei erantzun ahal izateko.

2.- Une oro bete beharko dituzte industria- eta enpresa-jarduerari aplikatu beharreko jardunbide egokiak, bai eta elikagaien segurtasunari, trazabilitateari, kalitateari eta hondakinen murrizketari buruz indarrean dagoen araudia ere, eta organo eskudunei berehala jakinarazi beharko diete produktuen kaltegabetasunari eragin diezaiokeen edozein gorabehera.

3.- Era berean, egiten dituzten produktuei buruzko informazio zehatza eta egiazkoa eman beharko dute etiketetan, dokumentu osagarrietan eta publizitatean. Administrazioarekin edo kontsumitzaileen elkarteekin batera, kanpainetan parte hartu ahal izango dute, produktuen ezaugarri organoleptikoak eta nutritiboak hobeto ezagutzeko eta herritarren elikadura-ohiturak hobetzeko.

4. – Nekazaritza- eta elikagaigintza-industria orok, egoitza soziala edo instalazioren bat Euskal Autonomia Erkidegoan badu eta bere jarduera lege honen eranskinean jasotakoan artean badago, erantzukizunpeko adierazpenaren araubidea bete beharko du, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean arautua. Adierazpen hori nahitaezkoa izango da, eta jarduera martxan jarri aurretik aurkeztu beharko da.

5.- Erantzukizunpeko adierazpenean jasotako datuak Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroan sartuko dira, hargatik eragotzi gabe nekazaritza- eta elikagaigintza-industriek erantzukizunpeko adierazpen hori zuzentzeko duten betebeharra, hala eskatzen zaienean.

**63. artikulua.-** *Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroa*

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza- eta elikagaigintza-gaietan eskumena daukan sailari atxikita egongo da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagai Establezimenduen Erregistroarekin (ELESE) konektatuta egongo da.

2.- Erregistro horretan sartuko dira, halaber, Ardo eta Edari Alkoholdunen Botilaratze eta Ontziratze Industrien Erregistroa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Olio Ekoizleen Erregistroa.

3.- Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren araubideari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko maiatzaren 21eko 63/2024 Dekretuan edo hura ordeztzen duen araudian ezarritakoaren arabera arautuko da.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroak elkarreragingarritasuna bermatuko du Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrekin (RGSEAA) eta nekazaritza-, elikagai-, osasun- edo udal-eskumenak gauzatzeko beharrezkoak diren administrazio publikoen gainerako erregistro eta datu-baseekin.

**64. artikulua.-** *Elikagai-establezimenduen erregistroa*

1.- Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan kokatuta dauden eta elikagaiak ekoiztearekin, eraldatzearekin, garraiatzearekin, banatzearekin edo inportatzearekin lotutako jardueraren bat garatzen duten elikagai-industria eta -establezimendu guztiek eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten lokalik gabeko elikagai-jarduera guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagai Establezimenduen Erregistroan (ELESE) inskribatu behar dute. Gainera, egiten duten jardueraren arabera, estatuko Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrean (RGSEAA) ere inskribatu behar dira.

2.- Jarduera txiki batzuetan, non ekoizpen-, eraldaketa- eta merkaturatze-izaera tokikoa den, hala nola ustiategi txikiak ekoizpen primarioetan edo ezaugarri tradizionalak edo artisau-ezaugarriak dituzten elikagaiak egiten dituztenetan, betekizun higieniko eta sanitarioak egokitu edo aldatu ahal izango dira maiatzaren 17ko 76/2016 Dekretuaren babesean (Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko hainbat arlotan betekizun higieniko eta sanitarioak egokitzeko baldintzak ezartzen dituen) eta arau tekniko espezifikoa argitaratuz. Hala ere, jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagai Establezimenduen Erregistroan (ELESE) inskribatu beharko dira.

**65. artikulua.-** *Zura eraldatzeko politikaren xedea*

Zura eraldatzeko politikaren xedea zuraren eraldaketa-industria sustatzera, modernizatzerara eta jasangarritasunera bideratutako jarduerak arautzea da, arreta berezia jarriz lehen eraldaketako faseetan (zerratzea, lehortzea, sailkatzea eta industria-erabileretarako prestatzea). Baso-baliabidearen trazabilitatea bermatu nahi da, baliabide horren balorizazioa bultzatu bioekonomiaren esparruan, eta landa-ingurunearen garapen ekonomiko eta sozialean lagundu.

**66. artikulua.-** *Baso-industriaren ildo estrategikoak*

1.- Zura eraldatzeko politika publikoak baso-kudeaketa jasangarriaren, ekonomia zirkularraren eta bioekonomiaren printzipioen arabera arautuko dira, eta baliabidearen aprobetxamendu integrala eta hondakinen murrizketa sustatuko dira.

2.- Era berean, berrikuntza teknologikoa eta industria-prozesuen digitalizazioa sustatuko dira, bai eta baso-ziurtapena ere, jatorriaren eta jasangarritasunaren berme gisa, eta emisioak murriztea, eraldaketa-fase guztietan energia-efizientzia hobetuz.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza-gaietan eskumena daukan sailak lehen eraldaketarako instalazioen modernizazioa bultzatuko du, kalitatea eta trazabilitatea kontrolatzeko teknologia aurreratuak eta sistema adimendunak erabiltzen lagunduz.

4.- Balio-kateko eragileen arteko lankidetzak bultzatuko da, baso-ekoizleak transformadoreekin eta fabrikatzaileekin lotzen dituzten mailen arteko harremanak sustatuz, bai eta azpiproduktuen balorizazioa ere, ingurumen-inpaktua murriztuz. Era berean, sektoreko profesionalentzako prestakuntza- eta gaikuntza-programak garatuko dira, berrikuntzara eta jasangarritasunera bideratuta.

5.- Helburu horiek lortzeko, zura eraldatzeko plan estrategikoak ezarriko dira, beste eremu batzuetako eta administrazio publikoetako sailtako baso-politikekin eta landa-garapeneko politikekin koordinatuta, eta modernizazioan, energia-efizientzian eta digitalizazioan inbertitzeko laguntzak eta dirulaguntzak artikulatuko dira.

### **III. KAPITULUA Elikadurarako, segurtasunerako eta elikagaien kalitaterako eskubidea**

#### **67. artikulua.- Elikadura-eskubidearen bermea**

1.- Elikadura pertsona guztien oinarrizko eskubidea da, eta botere publikoei dagokie eskubide hori bermatzea. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eskudunek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, eskubide horren babesa eta erabilera eraginkorra sustatuko dituzte, eta herritarrei ziurtatuko diete elikagai osasungarriak, seguruak eta kalitatezkoak eskura ditzaketela, kantitate nahikoan. Horretarako, dieta osasungarri baterako sarbide unibertsala ahalbidetzeko mekanismoak sustatuko dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko elikadura-sistemaren lehentasunezko helburua eta egiturazko bermea den aldetik, eta, horretarako, ekoizpen-, eraldaketa- eta merkaturatze-politikak azpimarratuko dituzte, produktu jasangarrien, ekologikoen eta kalitate bereziko produktuen gutxieneko kuotak eta hurbileko, denboraldiko eta ingurumenarekiko errespetuko baldintzetan ekoiztiko elikagaien gutxieneko kuotak bermatuko dituztenak.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza-, arrantza- eta elikagaigintza-gaietan eskumena daukan sailak, bere eskumenen esparruan, euskal lurraldean ahalik eta elikagai seguru, osasungarri eta kalitatezko gehien ekoiztea sustatuko du, eta, horrela, elikagaien autohornikuntza-maila handienak lortzen lagunduko du.

3.- Nekazaritza-arloko euskal administrazioek lehentasuna emango diete nekazaritza- eta elikagaigintza-industriak garatzeari, modernizatzeari eta instalatzeari, baldin eta lehengaia osorik edo zati batean euskal nekazaritza-sektorearen ekoizpen-esparruan sortzen bada. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan beste lurralde batzuetan finkatuta dauden elikagai-enpresak ezartzea sustatuko da, ekonomiaren eta enpleguaren eragile izan daitezkeenak, euskal elikagaien industriaren erreferentziatzko poloak indartuz eta enpresen arteko sinergiak sortuz.

4.- Ustiategi ekoizleetan bertan nekazaritza-produktuen eraldaketa sustatuko da, berrikuntza, dibertsifikazioa eta jatorrizko balio erantsia bultzatuz.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoan, elikagaien ekoizpenak elikagaien segurtasunaren, informazioaren (etiketatzearen) eta trazabilitatearen printzipioak bete beharko ditu, indarrean dagoen araudian eta lege honetan ezarritakoaren arabera.

6.- Elikaduraren arloko politika publikoek dieta orekatuak eta dibertsifikatuak sustatuko dituzte, osasun publikoko eta ebidentzia zientifikoko irizpideetan oinarrituak, landare-jatorriko eta animalia-jatorriko proteinak modu osagarrian integratzen dituztenak. Ondorio horietarako, animalia-jatorriko elikagaien nutrizio-ekarpen espezifikoa — bereziki haragia eta arraina — balio biologiko handiko proteinen eta mikronutriente kritikoaren iturri garrantzitsu gisa aitortzen da, eta bereziki esanguratsuak dira biztanleria-talde jakin batzuetan.

7.- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritzako gaietan eskumena daukan sailak programak garatuko ditu bere lurraldean ekoiztiko nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen kalitatea hobetzeko.

**68. artikulua.- Elikagaien segurtasun-sistema**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako nekazaritza- eta elikagaigintza-enpresak dira ekoizten eta egiten dituzten produktuen segurtasunaren arduradunak, eta haien nekazaritzako elikagaiak kaltegabeak direla zaindu behar dute. Zehazki, produktuen ekoizpen-, eraldaketa-, ontziratze- eta merkaturatze-etapa guztietan beren jardueri eragiten dien elikagaien segurtasunari buruzko araudiaren eskakizunak bete beharko dituzte, eta betetzen dituztela egiaztatu.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza-arloko eskumena duen sailak, Erika Fundazioaren bidez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Osasun Sailarekin koordinatuta, elikagaien segurtasuna bultzatuko du, horiek sustatzen dituzten ekimenen bidez, euskal nekazaritzako elikagaien sektorean elikagaien segurtasuna sustatzeko funtsezko tresna gisa.

3.- Arriskuaren analisiak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen elikagaien segurtasun-politika oinarritzen du, elikagaien kaltegabetasuna bermatzeko. Horretarako, 63/2009 Dekretuaren bidez ezarritako lankidetzak- eta koordinazio-mekanismoak baliatuko ditu (63/2009 Dekretua, elikadura-arriskuen arloko ebaluazio-, azterketa- eta aholkularitza-organoak sortzekoa).

4.- Arriskuen kudeaketari eta komunikazioari buruzko erabakiak arriskuaren ebaluazioan oinarrituko dira. Ebaluazio horrek elikadura-arriskuak identifikatu eta aztertuko ditu, eta arrisku horiek prebenitzeko eta kontrolatzeko neurriak proposatuko ditu. Arriskuak ezabatzeko edo murrizteko ekintzak modu koordinatuan jarriko dira abian elikakate osoan.

5.- Nekazaritza- eta elikagaigintza-enpresen titularrek agintaritza eskudunekin lankidetzan aritu beharko dute beren produktuak edozeinek izan ditzakeen arriskuak saihesteko hartutako neurriei dagokienez, unean-unean araudi aplikagarriak ezarritako autokontrol-sistemak txertatuz, egiten dituzten produktuen kaltegabetasuna eta osasungarritasuna bermatzeko.

6.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek, gainerako agintaritza eskudunekin koordinatuta, elikakatea kontrolatzeko urte anitzeko planak egingo ditu aldizka, arriskuen analisisan oinarritutako prebentzio-ikuspegiarekin, nekazaritza- eta elikagaigintza-enpresetan elikagaien segurtasun-maila handia bermatzeko.

7.- Plan horiek kontrol ofizialeko programetan zabalduko dira. Programa horiek euskal ekoizpen-sistemen errealitatera eta euskal administrazioaren egituretara egokituko dira, eta kontrol ofizialean eskumena duten agintarien artean irizpideak homogeneizatzeko eta elikagaien eta pentsuen kontrol ofizialera bideratutako baliabideak optimizatzeko balioko dute.

**69. artikulua.- Elikagai-krisien kudeaketa**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek eta nekazaritzaren arloan eskumena duten foru-organoek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Osasun Sailarekin koordinatuta, elikagaien alertak eta krisi-egoerak kudeatzeko behar diren protokoloak egingo dituzte, One Health ikuspegia kontuan hartuta, eta giza osasunaren, animalien osasunaren eta ingurumen-osasunaren arloko koordinazioa sustatuz.

2.- Protokolo horiek honako helburu hauek izango dituzte:

- a) Inplikaturako agintariekin eta beste erakunde eskudun batzuekin koordinatzeko, komunikatzeko eta informatzeko sistema eraginkorrak ezartzea.
- b) Kalteturako produktuak modu eraginkorrean erretiratzen direla bermatzea.
- c) Elikagaien katean kontsumitzaileen edo ekoizpen-abereen osasunerako arriskutsuak diren produktuak sartzeari saihestea.
- d) Elikagai-eskasia larria duten biztanleei edo ganaduari elikagaien hornidura bermatzea.

**70. artikulua.- Elikagaiei buruzko informazioa eta etiketak**

1.- Nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuek funtsezko ezaugarri buruzko informazio egiazkoa, objektiboa, osoa eta ulergarria eman beharko diete hartzaileei, fase guztietan. Informazio horrek behar bezala erabiltzeko edo kontsumitzeko jarraibideak izango ditu, bai eta erabiltzeko edo kontsumitzeko aurreikus daitezkeen arriskuei buruzko ohartarazpenak ere, erabiltzaileek aukera izan dezaten kontzienteki eta arrazionalki hautatzeko eta segurtasunez eta behar bezala erabiltzeko.

2.- Beren izaerarekin eta indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik, ontziratutako produktuen etiketek, aurkezpenek eta publizitateak aplikatu beharreko araudiak unean-unean ezartzen duena jaso beharko dute.

7.- Ikuskapen-jarduerak egiten dituzten langileek, ikuskapena egiten duten unean bertan, kautelazko, prebentziozko edo behin-behineko neurriak hartu ahal izango dituzte, beharrezkoak direnak gertakarien jarraitutasuna edo errepikapena saihesteko edo eragindako kalteak arintzeko.

8. – Ikuskatzaileek hartutako kautelazko neurriak lau eguneko epean berretsi, aldatu edo kendu beharko ditu zehapen-espeditentea irekitzeko eskumena duen organoak. Neurri horiek ondorerik gabe geratuko dira, baldin eta prozedura hasteko erabakian neurri horiei buruzko berariazko erabakirik jasotzen ez bada.

9.- Nolanahi ere, artikulua honetan xedatutakoaren arabera hartutako neurriak kendu edo aldatu ahal izango dira, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, espeditentearen instruktorearen probidentzia bidez, eta dagokion prozedura amaitzen duen administrazio-ebazpenaren eraginkortasunarekin azkenduko dira.

10.- Zehapen-prozedura hasteko egintzan, organo eskudunak modu arrazoituan eman beharko du hartutako behin-behineko neurriak mantentzeko, aldatzeko edo errebokatzeko buruzko iritzia, 39/2015 Legearen 56. artikuluan edo hura ordeztzen duen araudian aurreikusitakoaren arabera. Neurri horiek automatikoki azkenduko dira, baldin eta, ezarri eta lau eguneko epean, dagokion zehapen-espeditentea hasi ez bada.

## **VI. TITULUA - ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ARAUBIDEA**

### **I. KAPITULUA Arau-haustek**

#### **98. artikulua.- Arau-haustek**

1. – Lege honetan araututako gaietan, arau-hauste administratiboak dira hurrengo artikuluetan tipifikatutako eta zehatutako ekintzak edo ez-egiteak, hargatik eragotzi gabe Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzekoak diren eta gai horiek sektoreka arautzen dituzten lege-mailako arauetan tipifikatutako arau-haustek.

2. – Lege honetan ezarritako arau-hauste administratiboek ez dituzte eragotziko egileen erantzukizun zibilak, penalak edo bestelakoak.

#### **99. artikulua.- Nekazaritza arloko arau-haustek**

1. Nekazaritza-arloko arau-haustek arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.

2.- Arau-hauste arinak dira:

- a) Administrazio inplikatuari erregelamendu bidez ustiategiari buruz ezartzen diren datuak aurreikusitako epeetan jakinarazteko betebeharra ez betetzea, eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustiategien Erregistroari, erroldari eta nahitaez egin beharreko beste estatistika-eragiketa batzuei buruzkoak.
- b) Ustiapen-koaderno indarrean dagoen araudiaren arabera betetzeko eta eguneratuta edukitzeko betebeharra ez betetzea.
- c) Agintari eskudunen ikuskapen-lanak oztopatzea.
- d) Ikuskapen eta kontrol administratiboko eginkizunetarako behar den informazioa edo dokumentazioa osorik ez ematea, ikuskapen-lana eragozten duen informazioaren irakurgarritasunik edo ulergarritasunik eza barne.
- e) Saiakuntzak, probak edo ikuskapenak osorik ez egitea edo emaitza zehaztugabeak lortzea, egitateak behar bezala ez egiaztatzeagatik edo arau teknikoak behar bezala ez aplikatzeagatik.

- f) Kautelazko neurriak ez betetzea, betiere lege honetan arintzat tipifikatutako arau-hausteekin zerikusia badute.
- g) Oro har, nekazaritza-arloan eskumena duten administrazioek jarduerari buruz emandako jarraibideak ez betetzea, eta nekazaritza-jarduerarekin zerikusia duten arauetan ezarritako baldintzak, betebeharrak edo debekuak ez betetzea, betiere arau-hauste formal hutsak badira, astuntzat edo oso astuntzat jotzen ez direnak.

3.- Arau-hauste astunak dira:

- a) Nekazaritza-jarduera gauzatzea lege honen 15. artikuluan aurreikusitako Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorrean inskribatuta egon gabe.
- b) Nekazaritza-jarduera gauzatzea ekoizpen jasangarrira eta karbono-aztarna murriztera bideratutako ekoizpen-praktika eta -metodoak erabili gabe, lege honen 24. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- c) Nekazaritza-jardueran aritzea lege honen 29. artikuluan aurreikusitako Landareen Operadore Profesionalen Erregistroan (ROPVEG) inskribatuta egon gabe.
- d) 5 urtez nekazaritza-jarduerarik ez izatea, lege honen 20.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- e) Suteak agertzeko eta zabaltzeko arriskua dakarten nekazaritza- edo baso-praktikak egitea.
- f) Sendagaiak behar bezala ez agintzea.
- g) Antibiotikoen eta beste sendagai batzuen hornidura, albaitaritza-preskripziorik gabe.
- h) Ustiategiko instalazioak egoera onean mantentzeko betebeharra ez betetzea, nekazaritzako zabortegeiak edo aurri-egoeran daudenak agertzea edo mantentzea saihestuz.
- i) Uko egitea edo aurka egitea organo eskudunek edo haien agenteek lege honetan aipatzen diren gaii buruz informatzeko, zaintzeko, ikertzeko, ikuskatzeko, izapidetzeko eta betearazteko eskatzen dituzten datuak edo informazioa emateari, baldin eta uko egiteak edo aurka egiteak ez badu arrazoi justifikaturik.
- j) Dokumentazio faltsua ematea.
- k) Lokal, instalazio edo garraiobideetara sartzen ez uztea.
- l) Ikuskaritzak emandako epean ez ematea eskatutako informazioa eta dokumentazioa.
- m) Kautelazko neurriak ez betetzea, betiere lege honetan astuntzat tipifikatutako arau-hausteekin zerikusia badute.
- n) Gutxienez bi arau-hauste arin behin baino gehiagotan egitea.

4.- Arau-hauste oso astunak dira:

- a) Gutxienez bi arau-hauste astun behin baino gehiagotan egitea.
- b) Kautelazko neurriak ez betetzea, betiere lege honetan oso astuntzat tipifikatutako arau-hausteekin zerikusia badute.

**100. artikulua.- Abeltzaintzako ekoizpenaren arloko arau-haustek**

1.- Abeltzaintza-ekoizpenaren arloko arau-haustek arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.

2.- Arau-hauste arinak dira:

- a) Agintari eskudunen ikuskapen-lanak oztopatzea.

- b) Ikuskapen eta kontrol administratiboko eginkizunetarako behar den informazioa edo dokumentazioa osorik ez ematea, ikuskapen-lana eragozten duen informazioaren irakurgarritasunik edo ulergarritasunik eza barne.
- c) Kautelazko neurriak ez betetzea, betiere lege honetan arintzat tipifikatutako arau-hausteekin zerikusia badute.
- d) Uko egitea edo aurka egitea organo eskudunek edo haien agenteek lege honetan aipatzen diren gaiei buruz informatzeko, zaintzeko, ikertzeko, ikuskatzeko, izapidetzeko eta betearazteko eskatzen dituzten datuak edo informazioa emateari, baldin eta uko egiteak edo aurka egiteak ez badu arrazoi justifikaturik.
- e) Ikuskaritzak emandako epean ez ematea eskatutako informazioa eta dokumentazioa.
- f) Saiakuntzak, probak edo ikuskapenak osorik ez egitea edo emaitza zehaztugabeak lortzea, egitateak behar bezala ez egiaztatzeagatik edo arau teknikoak behar bezala ez aplikatzeagatik.
- g) Oro har, abeltzaintzako ekoizpenaren arloan eskumena duten administrazioek jarduerari buruz emandako jarraibideak ez betetzea, bai eta abeltzaintzako ekoizpen-jarduerarekin lotutako arauetan ezarritako betekizunak, betebeharrak edo debekuak ere, baldin eta arau-hauste formal hutsak badira, astuntzat edo oso astuntzat jotzen ez direnak.

**3.- Arau-hauste astunak dira:**

- a) Abeltzaintza-ekoizpeneko jardueran aritzea Euskal Autonomia Erkidegoko abeltzaintza-ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen otsailaren 25eko 50/2025 Dekretuan aurreikusitako betebeharrak bete gabe.
- b) Abeltzaintzako ekoizpen-jardueran aritzea lege honen 36. artikuluan aurreikusitako betebeharrak bete gabe, animaliak identifikatzeari eta mugitzeari dagokienez.
- c) Abeltzaintzako ekoizpen-jardueran aritzea lege honen 41. artikuluan aurreikusitako betebeharrak bete gabe, gaixoen eta prozesu patologikoen jakinarazpenari dagokionez.
- d) Abeltzaintzako ekoizpen-jardueran aritzea Euskal Autonomia Erkidegoan gizakiek jateko ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuen arloko eginkizunak antolatzeari eta banatzeari buruzko apirilaren 24ko 60/2012 Dekretuan edo hura ordeztzen duen araudian aurreikusitako betebeharrak bete gabe.
- e) Kautelazko neurriak ez betetzea, betiere lege honetan astuntzat tipifikatutako arau-hausteekin zerikusia badute.
- f) Gutxienez bi arau-hauste arin behin baino gehiagotan egitea.

**4.- Arau-hauste oso astunak dira:**

- a) Kautelazko neurriak ez betetzea, betiere lege honetan oso astuntzat tipifikatutako arau-hausteekin zerikusia badute.
- b) Gutxienez bi arau-hauste astun behin baino gehiagotan egitea.

**101. artikulua.- Nekazaritza- eta elikagaigintza-industriren arloko arau-hausteak**

1.- Nekazaritza- eta elikagaigintza-industriren arloko arau-hausteak arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.

**2.- Arau-hauste arinak dira:**

- a) Nekazaritza- eta elikagaigintza-arloan jarduten duten pertsona fisiko edo juridikoek ez betetzea lege honen 68. artikuluan informazioari buruz ezarritako betebeharrak.
- b) Agintari eskudunen ikuskapen-lanak oztopatzea.

- c) Ikuskapen eta kontrol administratiboko eginkizunetarako behar den informazioa edo dokumentazioa osorik ez ematea, ikuskapen-lana eragozten duen informazioaren irakurgarritasunik edo ulergarritasunik eza barne.
- d) Uko egitea edo aurka egitea organo eskudunek edo haien agenteek lege honetan aipatzen diren gaiei buruz informatzeko, zaintzeko, ikertzeko, ikuskatzeko, izapidetzeko eta betearazteko eskatzen dituzten datuak edo informazioa emateari, baldin eta uko egiteak edo aurka egiteak ez badu arrazoi justifikaturik.
- e) Ikuskaritzak emandako epean ez ematea eskatutako informazioa eta dokumentazioa.
- f) Saiakuntzak, probak edo ikuskapenak osorik ez egitea edo emaitza zehaztugabeak lortzea, egitateak behar bezala ez egiaztatzeagatik edo arau teknikoak behar bezala ez aplikatzeagatik.
- g) Kautelazko neurriak ez betetzea, betiere lege honetan arintzat tipifikatutako arau-hausteekin zerikusia badute.
- h) Oro har, nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko administrazio eskudunek jarduerari buruz emandako jarraibideak ez betetzea, bai eta nekazaritza- eta elikagaigintza-jarduerarekin lotutako arauetan ezarritako betekizunak, betebeharrak edo debekuak ez betetzea ere, baldin eta arau-hauste formal hutsak badira, astuntzat edo oso astuntzat tipifikatu gabeak.

3.- Arau-hauste astunak dira:

- a) Nekazaritza- eta elikagaigintza-arloan jarduten duten pertsona fisiko edo juridikoek ez betetzea lege honen 63. artikuluan aurreikusitako betebeharrak.
- b) Elikagaiak ekoiztearekin, eraldatzearekin, garraiatzearekin, banatzearekin edo inportatzearekin lotutako jardueraren bat edo egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duen lokalik gabeko elikagai-jardueraren bat egiten duten pertsona fisiko edo juridikoek ez betetzea lege honen 64. artikuluan aurreikusitako Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagai Establezimenduen Erregistroan (ELESE) inskribatuta egoteko betebeharra.
- c) Nekazaritza- eta elikagaigintza-arloan jarduten duten pertsona fisiko edo juridikoek ez betetzea lege honen 66. artikuluan elikagaien segurtasunari buruz ezarritako betebeharrak.
- d) Gutxienez bi arau-hauste arin behin baino gehiagotan egitea.
- e) Kautelazko neurriak ez betetzea, betiere lege honetan astuntzat tipifikatutako arau-hausteekin zerikusia badute.

4.- Arau-hauste oso astunak dira:

- a) Gutxienez bi arau-hauste astun behin baino gehiagotan egitea.
- b) Kautelazko neurriak ez betetzea, betiere lege honetan oso astuntzat tipifikatutako arau-hausteekin zerikusia badute.

**102. artikulua.- Elikagaigintzako arau-hausteak**

1.- Elikagaien arloko eta elikagaien kontrolaren arloko arau-hauste administratiboak dira lege honetan edo nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren kalitatearen defentsaren arloan aplikatzekoak diren beste lege batzuetan tipifikatutako edozein ekintza edo ez-egite. Lege honetan araututako arau-hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko da, halaber, animalien elikadurarako produktuen eta ongarrien ekoizpenaren eta merkaturatzearen kalitatearen eta adostasunaren arloan. Ardoa eta mahatsetik eta ardotik eratorritako produktuak salbuetsita daude, eta Europar Batasuneko, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudi espezifikoan jasotakoa aplikatu behar zaie.

2.- Elikagaigintzako arau-hausteak arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.

**103. artikulua.- Elikagaigintzako arau-hauste arinak**

1. Erregistroen, nahitaezko dokumentazioaren eta trazabilitatearen arloan:

- a) Aldaketak egitea jarduera handitzean, murriztean edo lekualdatzean, bai eta titulartasuna aldatzean, egoitza soziala aldatzean edo jarduera uztean ere, dagokion erregistro-aldaketa jakinarazi edo eskatu gabe, alta emanda dagoen erregistro guztietan.
- b) Arrazoi justifikaturik gabe, eskura ez izatea erregistroetako dokumentazioa, egoera- eta mugimendu-partreak, dokumentu komertzialak edo indarrean dauden xedapenek behartzen dituzten dokumentu guztiak, ikuskapen-egintzetan kontrolatzeko eskatzen denean.
- c) Ez gordetzea trazabilitatea egiaztatzen duten erregistroak, dokumentu komertzialak eta gainerako agiriak erregelamenduz ezarritako denboran, organo eskudunaren errekerimendurik ez dagoenean.
- d) Ez eguneratzea trazabilitate-erregistroen dokumentazioa, existentzia- eta mugimendu-partreak, dokumentu komertzialak edo nekazaritzako eta elikagaigintzako produktu baten trazabilitatearen jarraipena egiteko nahitaezkoak diren dokumentu guztiak, baldin eta ez bada hilabete baino gehiago igaro egin behar izan zenetik.
- e) Dokumentu komertzialetan, adierazpenetan eta trazabilitate-sistemako erregistroetan datu edo informazioen zehaztasun ezak, akatsak edo omisioak agertzea, baldin eta kontsignatutako kantitatearen eta kantitate zuzenaren arteko aldeak ez baditu gainditzen aplikatzekoa den araudi espezifikoak ezarritako errore-marjinak, edo, araudi espezifikorik ezean, bien arteko aldea ehuneko hamabost baino handiagoa ez bada. Portzentaje hori ehuneko bostera murriztuko da, aplikagarri den berariazko legeriarik ezean, izendapen geografikoren bat edo beste kalitate- eta jatorri-bereizgarriren bat duten produktuei buruzko adierazpen edo erregistroen kasuan.
- f) Elikagaiei buruzko araudian ezarritako adierazpenak ezarritako epeen barruan ez aurkeztea, edo adierazpen horiek oker aurkeztea, baldin eta zehaztasun ezek, akatsek edo omisioek ez badiete eragiten produktuen izaerari, identitateari, kalitateari, ezaugarriei, osaerari edo jatorriari.
- g) Andelak, siloak, edukiontziak eta solteko produktuen edozein ontzi mota identifikatuta ez edukitzea, edo haien trazabilitatea bermatzeko moduan identifikatuta ez egotea; eta, hala badagokio, bolumen nominala eta edukia ez adieraztea, aplikatzekoa den araudi espezifikoak hala zehazten duenean.
- h) Erreklamazioak erregistratzeko eta tratatzeko eta bat ez datozen produktuak erretiratzeko sistemarik ez izatea, araudiak jardueraren arabera hala aurreikusten badu.

2. Etiketen arloan:

- a) Elikadurako produktuen edo elikagaiak produzitzeko edo komertzializatzeko materia edo elementuen etiketa, errotulu, aurkezpen edo bilgarrietan datu edo informazioen zehaztasun ezak, akatsak edo omisioak agertzea, baldin eta zehaztasun ez, akats edo omisio horiek ez badiete eragiten produktu, materia edo elementu horien izaera, identitate, kalitate, ezaugarri edo jatorriari.
- b) Nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak informazio egiazko, objektibo, oso eta ulergarririk gabe aurkeztea produktu horien hartzaileei edo erabiltzaileei, baldin eta informazio horrek etiketatzeari buruzko araudi orokorrean nahitaezkotzat jotako informazioari borondatez gehitzen zaion aukerako informazioari eragiten badio.
- c) Aurrekoa bete arren, behar bezala erabiltzeko edo kontsumitzeko jarraibiderik ematen ez duten nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak aurkeztea, baldin eta jarraipen bat egin behar bazaie helburu horietarako.

- d) Elikagaigintzako produktuaren edo elikagaiak produzitzeko edo komertzializatzeko materia edo elementuaren benetako ezaugarrien eta eskainitakoen arteko desadostasuna, baldin eta aplikatzekoa den araudiak edukia mugatzen duen parametro edo elementuei badagozkie, araudi horretan jasotako tolerantzia gainditu gabe, eta produktuaren izaerari, identitateari, erregelamenduzko definizioari, kalitateari, izendapenari edo izenari eragiten ez badio.

3. Ikuskapenaren arloan:

- a) Kautelazko neurriak ez betetzea, betiere lege honetan arintzat tipifikatutako arau-hausteekin zerikusia badute.
- b) Ikuskapen eta kontrol administratiboko eginkizunetarako behar den informazioa edo dokumentazioa osorik ez ematea, ikuskapen-lana eragozten duen informazioaren irakurgarritasunik edo ulergarritasunik eza barne.

4. Oro har, elikagai-ekoizpenaren kalitatearen defentsaren arloan eskumena duten administrazioek jarduerari buruz emandako jarraibideak ez betetzea, bai eta elikagaien ekoizpenarekin eta merkaturatzearekin – garraioa barne – lotutako arauetan ezarritako betekizunak, betebeharrak edo debekuak ere, baldin eta arau-hauste formal hutsak badira, astuntzat edo oso astuntzat tipifikatzen ez direnak.

**104. artikulua.- Elikagaigintzako arau-hauste astunak**

1. Erregistroen, nahitaezko dokumentazioaren eta trazabilitatearen arloan:

- a) Nekazaritzako elikagaiak edo nekazaritzako elikagaiak produzitu eta komertzializatzeko materia eta elementuak ekoitzi, eraldatu edo komertzializatzeko etapetako edozeinekin lotutako jarduerak egitea, lege honetan ezarritako erregistroei jardueraren jakinarazpena egin gabe.
- b) Ez jakinaraztea lege honetan ezarritako erregistroei jarduera zabaldu eta murriztu dela, lekuz aldatu dela, titulartasuna edo helbidea aldatu dela edo jarduera eten dela, erregularizatzeko alde zuzeneko errekerimendua alde batera utzita.
- c) Animalien elikadurako ekoizpen-, eraldaketa-, biltegiatze-, garraio- edo banaketa-etapetako edozeinekin lotutako jarduerak egitea, haien gaineko agintaritza eskudunari Animalien Elikadurako Operadoreen Erregistroan inskribatzeko jardueraren jakinarazpenik egin gabe.
- d) Ez eguneratzea trazabilitate-erregistroen dokumentazioa, existentzia- eta mugimendu-partea, dokumentu komertzialak edo nekazaritzako eta elikagaigintzako produktu baten trazabilitatearen jarraipena egiteko nahitaezkoak diren dokumentu guztiak, baldin eta eguneratu behar izan zenetik hilabete baino gehiago igaro bada, edo, epe hori igaro gabe ere, ekoizpena eta izakinak ezin badira beste dokumentazio baten bidez justifikatu.
- e) Ez gordetzea trazabilitatea egiaztatzen duten erregistroak, dokumentu komertzialak eta gainerako agiriak erregelamenduz ezarritako denboran, baldin eta alde zuzeneko errekerimendua izan bada.
- f) Trazabilitate-sistemako merkataritza-dokumentuetan, adierazpenetan eta erregistroetan datu edo informazioen zehaztasun ezak, okerrak edo omisioak agertzea, baldin eta idatzitako kantitatearen eta kantitate zuzenaren arteko aldeak aplikatzekoa den araudi espezifikoak ezarritako errore-marjinak gainditzen baditu, edo, araudi espezifikorik ezean, bien arteko aldea ehuneko hamabost baino handiagoa bada, edo ehuneko bost baino handiagoa, aplikatzekoa den legeria espezifikorik ezean, izendapen geografikoren bat edo kalitate- eta jatorri-ikurren bat duten produktuei buruzko adierazpenen edo erregistroen kasuan.

- g) Elikagai-produktuen edo elikagaiak produzitzeko eta komertzializatzeko materia eta elementuen benetako identitatea aldatzea, identifikatzeko balio duten datuak edo dokumentuak faltsutuz.
- h) Elikagaiei buruzko araudian ezarritako adierazpenak ez aurkeztea edo gaizki aurkeztea, baldin eta adierazpen horietako zehaztasunik ezak, akatsak edo omisioak eragina badu jasotako produktuen izaeran, kalitatean, ezaugarrietan, osaeran edo jatorrian.

## 2. Etiketen arloan:

- a) Nekazaritzako elikagaiak edo nekazaritzako elikagaiak produzitzeko eta komertzializatzeko materia eta elementuak merkaturatzea, nahitaezkoak diren etiketa, errotulu, aurkezpen, bilgarri edo ontzirik gabe, edo haien informazioak hartzaileak engainatzea eragiten badu.
- b) Elikadurako produktuen edo elikagaiak produzitzeko edo komertzializatzeko materia edo elementuen etiketa, errotulu, aurkezpen edo bilgarrietan zehaztasun ezak, okerrak edo omisioak agertzea, baldin eta zehaztasun ez, oker edo omisio horiek eragiten badiete produktu, materia edo elementu horien izaera, identitate, kalitate, ezaugarri edo jatorriari.
- c) Nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak aurkeztea produktu horien funtsezko ezaugarriei buruzko informazio egiazko, objektibo, oso eta ulergarririk gabe, nahitaezko etiketatze orokorraren informazioari eragiten dionean.
- d) Nekazaritzako elikagaien edo elikagaiak produzitzeko eta komertzializatzeko materia eta elementuen etiketa, ontzi, bilgarri, aurkezpen, eskaintza eta publizitatean izen sozial, izen edo deitura komertzial, esapide, zeinu, marka, sinbolo, enblema, deitura, izendapen, kalifikazio, produktu-mota, jatorri- edo jatorri-adierazpen eta ekoizpen- edo elaborazio-sistemari buruzko adierazpen hauek erabiltzea:
  - 1. Ez badatoz bat produktuarekin edo, fonetika-, grafia- edo ortografia-antzekotasunagatik, nahastea eragin badezakete, nahiz eta aurretik "mota", "estiloa", "generoa", "imitazioa", "ordezkoa" edo antzekoak jarri.
  - 2. Ez badatoz bat operadorearen benetako nortasunarekin.
  - 3. Ez badatoz bat benetako ekoizpen-, fabrikazio-, elaborazio-, ontziratze-, merkaturatze- edo banaketa-lekuarekin.
  - 4. Ezin dira egiaztatu.
- e) Iruzur egitea elikagaien ezaugarrietan edo elikagaiak produzitzeko eta komertzializatzeko materia eta elementuetan. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira lortutako emaitza analitikoek dagokienez onartutako legezko tolerantziak.

## 3. Ikuskapenaren arloan:

- a) Kautelaz atxikitako salgaiak manipulatzeko, lekualdatzea edo edozein modutan xedatzea, organo eskudunaren baimenik gabe, betiere zigiluak manipulatzeko ez badira eta salgaiak ez badira atera atzeman ziren instalazioetatik.
- b) Uko egitea edo aurka egitea organo eskudunek edo haien agenteek lege honetan aipatzen diren gaiei buruz informatzeko, zaintzeko, ikertzeko, ikuskatzeko, izapidetzeko eta betearazteko eskatzen dituzten datuak edo informazioa emateari, baldin eta uko egiteak edo aurka egiteak ez badu arrazoi justifikaturik.
- c) Informazio okerra edo dokumentazio faltsua ematea.
- d) Lokal, instalazio edo garraiobideetara sartzen ez uztea.
- e) Ez uztea laginak hartzen edo produktuen gaineko bestelako kontrolak egiten.
- f) Ez justifikatzea zirkulazioan jarritako produktuen gainean egindako egiaztapenak edo kontrolak.

- g) Ikuskapena egiten den unean ez ematea ikuskapen-lanak egiten dituzten administrazio publikoko langileek beren ikerketa-lanak egiteko behar dituzten dokumentazioa, datuak eta informazioak, eta ez uztea horiek egiaztatzen.
- h) Ikuskaritzak emandako epean ez ematea eskatutako informazioa eta dokumentazioa.
- i) Kalitatea babesteko figurak edo aukerako oharrak dituzten etiketak kontrolatzeko eta ziurtatzeko organoek egitateen errealitatearekin bat ez datozen ziurtagiriak edo txostenak egitea.
- j) Saiakuntzak, probak edo ikuskapenak osorik ez egitea edo emaitza zehaztugabeak lortzea, egitateak behar bezala ez egiaztatzeagatik edo arau teknikoak behar bezala ez aplikatzeagatik.

#### 4. Beste arau-hauste astun batzuk.

- a) Nekazaritzako elikagaiak edo nekazaritzako elikagaiak produzitu eta komertzializatzeko materia eta elementuak ekoitzi, eraldatu eta komertzializatzeko etapetako edozeinekin lotutako jarduerak egitea baimenik gabe, baimena nahitaezkoa izanik, edo jarduerak aipatutako baimenean jasota ez daudenean edo baimen hori baliogabetu denean, betiere pertsonentzat, animalientzat edo ingurumenarentzat arriskurik ez badago.
- b) Operadoreen bulegoetan nekazaritzako elikagaien ekoizpen-, eraldaketa- edo merkaturatze-etapa desberdinekin lotutako jarduerak egiteko debekatuta dauden makinak edo instalazioak izatea.
- c) Solteko produktuak edukitzea edo saltzea horretarako baimenik izan gabe, bai eta aplikatzekoa den legeria espezifikoak baimentzen ez dituen substantziak edukitzea edo saltzea ere, edo horiek edukitzeko edo saltzeko baimenik ez dutenak.
- d) Edozein instalazio edo garraiobidetan identifikatu gabeko produktuak gordetzea.
- e) Unean-unean aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen autokontrol-sistemak ez ezartzea, egiten dituzten produktuen kaltegabetasuna eta osasungarritasuna bermatzeko.
- f) Ekoizpen-bitartekoak edo nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak elaboratzea, iruzurrezko helburuekin konposizioa aldatzen duten substantziak edo elementuak gehitzea edo kentzea dakarten tratamendu edo prozesuen bidez.
- g) Nekazaritzako elikagaiak edo nekazaritzako elikagaiak produzitu eta komertzializatzeko materia eta elementuak ekoitzi, eraldatu eta banatzeko faseetako edozeinetan, ez betetzea haien jarduerari eragiten dioten elikagaien segurtasun-arauak, eta, ondorioz, kaltegabeak ez izatea.
- h) Indarrean dagoen araudiak baimendu arren, ezarritakoaz beste modu batean erabiltzen diren tratamendu, praktika, prozesu edo substantziak aplikatzea, nekazaritzako elikagaien edo nekazaritzako elikagaiak produzitzeko edo komertzializatzeko materia eta elementuen osaerari, definizioari, identitateari, izaerari edo kalitateari eraginez.
- i) Nekazaritzako elikagaien ikuskapen-aktan jasotako akatsak zuzentzeko oharrak ez betetzea, baldin eta ikuskaritzak edo administrazioaren kontrol-arloko organo eskudunak horretarako epea ezarri badu.
- j) Kautelazko neurriak ez betetzea, betiere lege honetan astuntzat tipifikatutako arau-hausteekin zerikusia badute.
- k) Gutxienez bi arau-hauste arin behin baino gehiagotan egitea.

5. Oro har, iruzur egiteko edo irabaziak lortzeko asmoz, legeak nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren kalitatearen defentsaren arloan eraginkorrak izan ez daitezen egiten den jarduera oro, bai eta nekazaritzako elikagaien produkzioarekin eta merkaturatzearekin – garraioa barne – zerikusia duten legeetan ezarritako betekizun, betebeharrak edo debekuak saihesteko egiten dena ere.

**105. artikulua.- Elikagaigintzako arau-hauste oso astunak**

1. Nahitaezko dokumentazioari eta trazabilitateari dagokienez:
  - a) Ezinezkoa izatea nekazaritzako elikagaien trazabilitatearen jarraipena egitea ekoizpen-, eraldaketa-, ontziratze- eta merkaturatze-etapa guztietan, barnean hartuta garraioa, salmenta eta kostu bidezko edo doako edozein entrega-mota, barnean hartuta produktu horietan sartuko diren osagaiak, lehengaiak, gehigarriak eta substantzia deribatutak, ez dagoelako inolako erregistrorik, dokumentu osagarriak, fakturarik edo bestelako dokumentu edo daturik, hala nola produktuen hornitzaileen eta hartzaileen identitatea, produktu horiei buruzko informazioa, identifikazioa, izaera, jatorria, ezaugarri kualitatiboak eta ekoizpen- eta banaketa-baldintzak.
2. Etiketen arloan:
  - a) Eskubiderik gabe erabiltzea izendapen geografiko batek edo elikagaien kalitatearen beste babes- eta bereizgarri-figura batzuek babestutako izenei erreferentzia egiten dieten adierazpenak, merkataritza-izenak, markak, sinboloak edo enblemak; edo, babestutako izenekin edo zeinu edo enblema bereizgarriekin duten antzekotasun fonetiko edo grafikoagatik, nahasmena sor dezaketenak produktuen izaerari, kalitateari edo jatorriari buruz, nahiz eta horiekin batera «mota», «estiloa», «generoa», «imitazioa», «ordezkoa» edo antzekoak agertu.
  - b) Izendapen geografikoei edo elikagaien kalitatearen beste babes-figura eta bereizgarri batzuei dagozkien dokumentuak, zigiluak, etiketak edo bestelako identifikazio-elementuak bidegabe edukitzea, negoziatzea edo erabiltzea, bai eta faltsutzea ere, betiere delitu edo falta ez bada.
  - c) Produktuak faltsutzea edo faltsututako produktuak saltzea, betiere arau-hauste penala ez badira.
3. Ikuskapenaren arloan.
  - a) Kautelaz atzemandako salgaiak baimenik gabe manipulatzeko, lekualdatzea edo xedatzea, baldin eta zigiluak urratzen badira edo salgaiak atzeman ziren instalazioetatik ateratzen badira.
  - b) Ikuskapen-zerbitzuen jarduerari uko egitea.
  - c) Ikuskapenaz eta kontrolaz arduratzen diren langileei eta zehapen-espeditenteen instruktoerei egindako hertsapenak, mehatxuak, irainak, errepresaliak eta erasoak, baldin eta arau-hauste penala ez badira.
  - d) Ikuskapen- eta kontrol- edo ziurtapen-erakundeek egitateen errealitatearekin bat ez datozen txostenak edo ziurtagiriak egitea.
  - e) Saiakuntzak, probak edo ikuskapenak osorik ez egitea edo emaitza zehaztugabeak lortzea, egitateak behar bezala ez egiaztatzeagatik edo arau teknikoak behar bezala ez aplikatzeagatik, baldin eta horren ondorioz kalte oso larria eragiten bada edo arrisku oso larria eta berehalakoa eragiten bazaie pertsonari, animaliei edo ingurumenari.
4. Beste arau-hauste oso astun batzuk.
  - a) Hirugarrenek egin beharreko aldaketa, aizunketa, faltsifikazioa edo iruzurra zabaltzea dakarten arau-hausteak, horiek egiteko, estaltzeko edo ezkutatzeko substantzia, bitartekoak edo prozedurak ematen zaizkienak.
  - b) Osasun-araudiaren arau-hauste astunekin batera gertatzen diren arau-hausteak, osorik edo zati batean, edo arau-hauste horiek errazteko edo estaltzeko balio izan dutenak.
  - c) Nekazaritzako elikagaiak egitea, eraldatzea edo merkaturatzea, pertsonentzat, animalientzat eta ingurumenarentzat arriskutsuak diren praktika, tratamendu edo prozesuen bidez.

- d) Industria elaboratzaileen edo ontziratzaileen lokaletan elikagaiak elaboratzeko baimendu gabeko makinak, instalazioak edo produktuak edukitzea, pertsonentzat, animalientzat eta ingurumenarentzat arriskutsuak direnean.
- e) Baimena nahitaezkoa denean, nekazaritzako elikagaiak edo nekazaritzako elikagaiak produzitu eta komertzializatzeko materia eta elementuak ekoitzi, eraldatu eta komertzializatzeko etapetako edozeinekin zerikusia duten jardueretan aritzea baimenik gabe, edo baimen horretan jasota ez dauden edo baimen hori bertan behera utzi den jardueretan aritzea, baldin eta pertsonentzat, animalientzat edo ingurumenarentzat arriskua badakarte.
- f) Kautelazko neurriak ez betetzea, betiere lege honetan oso astuntzat tipifikatutako arau-hausteekin zerikusia badute.
- g) Gutxienez bi arau-hauste astun behin baino gehiagotan egitea.

## **II. KAPITULUA Zehapen-araubidea**

### **106. artikulua.- Zehapenak**

1.- Aurreko artikuluetan aurreikusitako arau-hausteak 30.001 eurotik 300.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira, arau-hauste oso astunen kasuan. Arau-hauste astunek 2.001 eta 30.000 euro bitarteko isuna, eta arinek ohartarazpena eta 2.000 euro bitarteko isuna.

2.- Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa gorabehera, lege honen 20.1 artikuluan ezarritakoaren arabera 5 urteko epean nekazaritza-jarduerarik ez badago, arau-haustea eragin duen zehapena jarriko zaio nekazaritza-lurra dagoen ustiategiaren titularrari. Zehapen hori honela kalkulatu da: hektarea bakoitzeko zenbatekoa bider nekazaritza-lur gisa aitortutako hektarea kopurua. Hektarea bakoitzeko zehapenak jasotzen duen zenbatekoa, oro har, hektarea horrek nekazaritza-lur gisa duen balioaren bikoitza izango da. Zenbateko hori ez da 10.000 eurotik beherakoa izango, ezta 120.000 eurotik gorakoa ere.

3.- Diruzko zehapenak ezartzean, kontuan hartu behar da arau-hausteak egitea ez dela arau-hausleentzat onuragarriagoa izango urratutako arauak betetzea baino, betiere proportzionaltasun-printzipioaren arabera eta arau-haustea eragin duen egitatearen astuntasuna eta ezarri beharreko zehapena behar bezala egokituta.

4.- Arau-hauste astuna edo oso astuna eginez gero, organo eskudunak, gainera, zehapen osagarri bat ezarri ahal izango du:

- a) Kalteak ez jarraitzeko zuzenketa-, segurtasun- edo kontrol-neurriak.
- b) Salgaiak, produktuak, ontziak, etiketak eta arau-haustearekin lotutako gainerako objektuak konfiskatzea, edo identifikatu gabeko produktuak konfiskatzea.
- c) Nekazaritza-, elikagai- edo abeltzaintza-enpresa aldi baterako ixtea, gehienez ere urtebeterako arau-hauste astunen kasuan, eta lau urterako, edo behin betiko ixtea arau-hauste oso astunen kasuan.
- d) Arau-hauste astun edo oso astunen kasuan, lege honen 70. artikuluan jasotako kalitate- eta jatorri-ikurren erregistroetan inskribatutako pertsonak egiten badituzte, erabaki ahal izango da, zehapen osagarri gisa, deitura edo marka erabiltzeko eskubidea aldi baterako etetea edo erregistroetan behin betiko baja ematea. Deitura edo marka erabiltzeko eskubidea aldi baterako eteteak deituraren etiketak eta beste dokumentu batzuk erabiltzeko eskubidea etetea dakar. Erregistroetan behin betiko baja emateak arau-hausleak baztertzea dakar, eta, ondorioz, izenari edo markari datxezkion eskubideak galtzea, bai eta onar daitezkeen beste bereizgarri batzuk ere.

### **107. artikulua.- Zehapenak mailakatzea**

1.- Arau-hauste mota bakoitzari dagokion zehapena zehazteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Nahita egin den edo zabarkeria hutsa den.
- b) Errepikapena, hau da, prozedura berean zehatzen diren irregulartasun edo arau-hauste bat baino gehiago egotea.
- c) Eragindako kalteen izaera, bereziki arau-hausteak kontsumitzaileen osasunean edo interes ekonomikoetan edo nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien eta abeltzaintza- edo nekazaritza-ustategien interesetan izan duen eragin kaltegarria.
- d) Falta astunak eta oso astunak behin eta berriz egitea; hau da, hiru urteko epean izaera bereko arau-hauste bat egitea, betiere ebazpen irmo bidez deklaratu bada eta egitateak ebazpena irmoa izan ondoren gertatu edo detektatu badira.
- e) Salmenten edo ekoizpenaren bolumena, eta araua hautsi duen enpresaren garrantzia.
- f) Arau-haustea dagokion zehapen-espeditentea ebatzi aurretik aitortzea edo zuzentzea.
- g) Dena delako jarduera, zerbitzu edo instalazioan eskatu beharreko kontrol eta arreta-neurririk ez izatea.
- h) Aldez aurreko ohartarazpenen urratze-maila.
- i) Arau-haustea edo arau-hausteak egiteagatik lortutako onura ez-zilegiaren zenbatekoa.

**108. artikulua.- Neurri osagarriak**

1. – Zehatutako arau-haustearekin zerikusia duten salgaiak, produktuak, ontziak, etiketak eta gainerako objektuak kautelaz atzematen direnean, zehapen-prozedura ebaztea dagokion agintaritza eskudunak haien helmuga erabakiko du. Zehatutako arau-haustearekin lotutako salgaiak, produktuak eta gainerako objektuak suntsitu egin beharko dira, baldin eta horiek erabiltzea eta kontsumitzea osasun publikorako arriskutsua bada. Nolanahi ere, ordezeko erabilerak, suntsipenak edo konfiskazioak eragindako gastuak arau-haustearen kontura izango dira, jabeari ordaindu beharreko kalte-ordaina barne, hura arau-haustea ez denean.

2. – Arau-haustea zehapen osagarri gisa ezarritako betebeharrak bat betetzen ez duenean, edo osorik betetzen ez duenean, hertsapen-isunak jarriko dira, ezarritako betebeharrak edo zehapena osorik bete dadin, hiru hilabetetik behin, dagokion zehapena erabat bete arte, eta isun bakoitzaren zenbatekoa ezin izango da 6.000 eurotik gorakoa izan. Hertsatzeko isunak independenteak eta bateragarriak izango dira egindako arau-hausteagatik zehapen gisa bidezkoak diren isunekin.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako laguntza edo dirulaguntza bat ematea ukatu ahal izango da, baldin eta deialdia egin aurreko bi urteetan eskatzaileari zehapena ezarri bazaio lege honetan araututako arau-hauste astun edo oso astun bat egiteagatik.

**109. artikulua.- Arau-hausteen erantzukizuna**

1.- Lege honetan tipifikatutako arau-hausteen erantzule izango dira egitez edo ez-egitez arau-hauste horiei egotzi ahal zaizkien pertsona fisikoak edo juridikoak.

2. – Bereziki, ontziratutako produktuetan egindako arau-hausteen erantzule etiketan agertzen diren enpresak edo izen sozialak izango dira, dela izenez, dela benetan identifikatzeko aukera ematen duen edozein adierazpenen bidez. Era berean, etiketan agertzen ez den elaboratzailea, fabrikatzailea edo ontziratzailea izango da erantzule solidarioa, baldin eta frogatzen bada egindako arau-haustea ezagutzen zuela eta baimena eman zuela. Etiketak faltsifikatu badira, faltsifikazioaren berri jakinda produktuak merkaturatzen dituzten pertsonen dagokie erantzukizuna, hargatik eragotzi gabe bide penaletik dagokion akzioak.

3. – Ontziratutako gabeko produktuetan, etiketarik gabe ontziratutakoetan egindako arau-hausteen kasuan, edo etiketan inolako sinadurarik edo izen sozialik agertzen ez denean, edukitzailea izango da erantzule, salbu eta aurreko edukitzaile baten erantzukizuna benetan identifika daitekeenean, hargatik eragotzi gabe egungoari dagokion erantzukizuna.

4. – Pertsona juridikoeak (kontseilu arautzaileak eta ikuskapen- edo kontrol-organismo edo -organoak barne) egindako arau-hausteen erantzule subsidiarioak izango dira haien administratzaileak edo titularrak, baldin eta ez badituzte egiten urratutako betebeharrak betetzeko beren eskumenekoak ziren egintzak, ez badute onartzen haien mendekoek ez betetzea, edo arau-hauste horiek egin ahal izateko erabakiak hartzen badituzte.

**110. artikulua.-** *Arau-haustek pilatzea*

Pertsona berari egotz dakizkiokeen bi arau-hauste edo gehiago gertatzen badira eta horietako bat beste bat egiteko beharrezkoa den bitartekoa bada, arau-hauste astunenari dagokion zehapena ezarri beharko da batera.

**111. artikulua.-** *Arau-hausteen preskripzioa*

1. Lege honetan tipifikatutako arau-haustek epe hauek amaitzean preskribatuko dira: arinak, urtebetera; astunak, hiru urtera; eta oso astunak, bost urtera.

2. Arau-hausteen preskripzio-epea ez da zenbatzen hasiko hura agertu edo kanporatu arte, eta, arau-hauste jarraituen kasuan, soilik ekintza arau-hauslea edo arau-haustea eragin duen azken egintza amaitzen denean. Arau-hauste bat baino gehiago batera gertatzen direnean, arau-hauste astunenari dagokiona izango da preskripzio-epea.

3. Preskripzioa eten egingo da egitate berberei edo lotutako beste egitate batzuei buruzko zigor-arloko jarduketa judizialen kasuan, baldin eta juridikoki ezinezkoa bada egitate edo egitate horiek kontsumo-araudia haustea dakarten egitateetatik bereiztea, eta, beraz, eman daitekeen epaia loteslea izango da administrazio jardulearentzat.

4. Era berean, arau-hausteen preskripzioa eten egingo da egitate berberengatik zehapen-prozedura administratiboak hasten direnean, interesduna jakinaren gainean egonda, araudi sektorialean oinarrituta, baldin eta, azkenean, oinarri bera duela ikusten bada eta kontsumoko araudia lehentasunez aplikatu behar bada. Kasu horietan, preskripzio-epearen zenbaketa berrabiaraziko da, baldin eta zehapen-espeditzea hilabete baino gehiagoz geldirik egon bada ustezko erantzuleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik.

**112. artikulua.-** *Prozedura iraungitzea*

1. Zehapen-prozedura iraungi egingo da, hasi eta bederatzir hilabetera ebazpenik eman ez bada.

2. Ordura arte bereiz izapidetzen ziren arau-haustek prozedura bakar batean metatzea erabakitzen bada, hasitako azken prozedura hasteko erabakia hartzen denetik hasiko da zenbatzen ebazpena emateko epea.

**113. artikulua.-** *Zehapenen preskripzioa*

1. Lege hau aplikatuz ezarritako zehapenek epe hauek amaitzen direnean preskribatuko dute: arinak, urtebetera; astunak, hiru urtera; eta oso astunak, bost urtera.

2. Zehapenen preskripzio-epea zehapena ezartzen duen ebazpena betearaztekoa den egunaren edo errekurtsua jartzeko epea igaro den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen. Kasu horietan, preskripzioa eten egingo da betearazpen-prozedura hasten bada, interesduna jakitun dela, eta epea berriro igaroko da prozedura hilabetetik gora geldirik badago arau-hausleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik. Zehapena ezartzen duen ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua ustez ezesten bada, zehapenaren preskripzio-epea errekurtsu hori ebazteko legez aurreikusitako epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

**114. artikulua.-** *Zehatzeko ahalaren organo titularra*

1.- Zehatzeko ahalaren organo titularra izango da lege honetan arau-hauste gisa tipifikatutako gai bakoitza kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumena duen organoa.

2.- Nekazaritza-lurra gutxiegi erabiltzeagatik arau-haustearen kasuan, zehatzeko ahalaren organo titularra gutxiegi erabilitako nekazaritza-lurzoruaren deklarazioaren organo arduraduna izango da,



## LEGE AURREPROIEKTUA, EUSKADIKO NEKAZARITZA, ELIKADURA ETA GASTRONOMIARENA/ 2026.05.19

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Departamento de Alimentación, Desarrollo rural, Agricultura y Pesca

---

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-lurzorua kontserbatzeari eta sustatzeari buruzko urriaren 2ko 193/2012 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

### **115. artikulua.- Zehapen-prozedura**

Zehapen-prozedura Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 39/2015 Legean eta hura garatzeko araudian eta Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean araututakoaren arabera izango da.

### **116. artikulua.- Zehapenen erregistroa eta publizitatea**

1. Lege honetan araututako erregistroetan zehapenei buruzko atal bat egongo da, eta bertan jasoko dira arau-hauste mota desberdinengatik hartutako ebazpen irmoak.

2. Arau-hauste oso astunengatiko zehapen irmoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagokion lurralde historikoko aldizkarian argitaratu beharko dira.

Argitalpenak arau-haustearen erantzuleen izen-abizenak edo sozietate-izena, egitateak eta egindako arau-hauste mota eta ezarritako zehapenaren zenbatekoa adierazi ahal izango ditu.

**Xedapen gehigarri bakarra:** *Hizkuntza-eskubideak*

Legea betetzeko neurriak hartzerakoan, euskal administrazio publikoek euskara eta gaztelania kanpo-harremanetan erabiliko direla bermatuko dute. Era berean, pertsona fisikoek eta pertsona juridikoen ordezkariak administrazio horiekiko harremanetan euskara eta gaztelania ahoz zein idatziz erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko duten eskubidea bermatuko da.

**Lehenengo xedapen iragankorra.** *Indarrean dauden xedapenak*

Lege honetan ezarritako erregelamendu bidezko garapena egiten ez den bitartean, arlo hori arautzen duten indarreko erregelamendu-xedapenak aplikatuko dira, lege honetan xedatutakoaren aurka ez doan guztian.

**Bigarren xedapen iragankorra:** *Errentamenduen erregistroa*

Lege hau onartu eta gehienez ere urtebeteko epean, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak foru-organoei helaraziko die errentamenduen kudeaketa, bai eta lekualdaketa hori egin arte dauden erregistroak ere.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** *Arauk indargabetzea.*

1. Indargabeturik geratzen dira lege honetan xedatutakoarekin kontraesanean edo bertan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko arau guztiak.
2. Berriaz indargabetuta geratzen dira xedapen hauek:
  - a) 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.
  - b) 126/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpenari buruzkoa.
  - c) 157/2010 Dekretua, ekainaren 8koa, Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroaren osaera eta funtzionamendu-erregimena arautzen dituen.
  - d) Ekoizpen integratuari eta hura nekazaritzako elikagaietan adierazteari buruzko otsailaren 13ko 31/2001 Dekretuaren 9. artikulua.

**Azken xedapenetako lehena.** *Erregelamendu bidezko garapena.*

- 1.- Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio lege hau garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.
- 2.- Lege honetan aurreikusitako erregelamendu-garapenak eta egokitzapenak gehienez ere bi urteko epean hasi beharko dira izapidetzen.

**Azken xedapenetako bigarrena.** *Euskadiko Elikakatearen Behatokia*

Elikakatearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko maiatzaren 7ko 57/2024 Dekretua egokituko da, eta eginkizun eta betebeharrak txertatuko dira EAeko Elikakatearen Behatokiaren publizitateari eta informazioari dagokienez.

**Azken xedapenetako hirugarrena.** *Indarrean jartzea*

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 200Xko XXXXren XXa. – Lehendakaria, Imanol Pradales Gil